



...elkarrizketa:

ITXASNE AGIRRE eta MARIA SANCHEZ >
“Nesken pala partidetara jende gutxiago joaten da. Berdintasuna saltzen dute baina ez da hala” 12. or

Sozioekonomia

Langabezia dela eta autoenplegurako bideak ugaritu dira 6. or.

Kultura

Bertsoa, eskoletan 500 aiaraldear batzen dituen jolasa 10. or.

Iritziak:

TXEMA
 URKIJIO 2. or.
ISA BOVEDA 7. or.
 RAUL ARZA 6. or.
TXANI
RODRIGEZ 10. or.
 JON MUÑOZ 11. or.
ELI
PINEDO 13. or.
 BELATE
 OLABARRIA 16. or.

aiaraldea



Aiaraldeko
 hamabostekaria
 2014 /// Martxoak 13 ///
 11 alea ///
 Doan ///
www.aiaraldea.com

Artziniegako Museoa 30 urtez auzolanean herri ondarea eta kultura zaintzen

Artziniegako Museoak 30 urte bete ditu. “Herritik eta herriarentzat” sortutako eskualdeko museo bakarra da. Urtemuga ospatzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte.

Artziniegako Museoa Artea etnografia elkarteak kudeatzen du. 1984an sortu zuten, auzolanean. Gazte talde batek etxeko tresna zaharrek erakusketa bat egin zuen. Arrakasta ikusita, herritarrei deialdia zabaldu eta antzinako bizimodua eta ofizioak

irudikatzen zituzten tresnak jaso zituzten. Horren emaitza da Artziniegako Museoa. 1984tik 2004ra santutegiko apaizek utzitako kortan kokatuta zegoen. Txiki geratu zitzaizela eta, ordea, auzolanean beste eraikin bat atondu eta bertan kokatu zuten egungo museoa. Urtemuga ospatzeko ekitaldi hainbat antolatu dituzte. Artea elkarteak antolatutako mahainguruan hartuko dute parte, besteak beste, Juan Jose Ibarretzek, Imanol Aretxabalak, Ramon Rabanerak eta Julio Herrerak. Urteurrena martxoaren 25ean bada ere, 28an egingo dute ospakizun ekitaldi nagusia. Besteak beste, museoa bisitatzeko “ate irekiak” antolatu dituzte.



DOWN SINDROMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA: Aurreiritziak hausteko beharra eta aukera berdintasuna aldarrikatu dute senide, elkarte eta langileek. 7 or.



OKONDO_{KO} Baserri azoka

MARTXOAK
23
 IGANDEA

EGITARAUA. 10:00 BASERRIKO ETA ARTISAUEN PRODUKTUEN ERAKUSKETA. 11:00 TRIKITILARIEN KALEJIRA. 12:00 GORRITI ETA BERE ABEREAK. GAZTAINA ERREEN DASTAKETA. 12:30 IRATXO DANTZA TALDEA ETA SODUPE-ZARAMILLO AITZINA PIKA TALDEAREN ERAKUSTALDIA ITZALDE ABESBATZAZ LAGUNDUTA. 13:00 EUSKO LABELEKO HARAGIAZ EGINDAKO HANBURGESEN DASTAKETA. 13:30 ITZALDE ABESBATZAKO GIZONEN KANTAK. 14:30 ZOZKETA: ARTISAUTZA PRODUKTUEN SORTA. GOIZEAN UMEENTZAKO GAZTELU PUZGARRIAK ETA TAILERRAK EGONGO DIRA.



OKONDOKO UDALA



_iritzia



Txema
Urquijo
ABOKATUA

_Leihotik


SOS Laudioko
Lamuza parkea

audio ez dela oso he-
rri arduratsua bere
hirigintza ondarea-
rekin. Guztiok, neu-
rri desberdinetan, jakina, ai-
patutako eraikin publikoen
abandonatzearen ardura-
dun gara: auzokideak, alda-
rrikapen inhibizioagatik; Uda-
la, mantenu arduraren utzi-
keriagatik eta Aldundiari
bere betebeharrak betetze-
ko eskakizunak uzteagatik;
eta foru erakundea, onda-
rearen jabe gisa dituen ar-
durak ez betetzeagatik.

Baina bigarrenik, aldarri-
kapen justu baten defentsan
ekimen pribatu bat egon de-
nean, auzokideen erantzun
sutsu bat sortu dela ere argi
geratu da. Eta garrantzi-
tsuagoa dena, hiritarren as-
kotariko sektoreak biltzeko
gai izan dena.

Lastima, protesta mar-
txan jarri zenean, Udalba-
tzan alderdi politikoen eki-
menak honen gainera ilunta-
sun handia egotzi izana.

Arabako Foru Aldundiak
herriari eman dion tratua-
ren ondorioz Laudion oso heda-
tua dagoen irain sentimen-
dua adieraztea ahalbidetu-
ko duen ekimena berresku-
ratzeko aukerak alderdi poli-
tikoen esku-sartze eza eska-
tzen du, Lamuzako parkeko
arazoaren harira sortutako
mugimenduak antolatu ahal
badu. Osterantzean, herri-
ko borroka alderdikoien kas-
karkerian eroriko da.



Emiliano
Irakaslea

Nire adinarekin ez, baina gaztea
banintz kanpora joango nintza-
teke. Lan bila ez doana ikastera
doa; kanpoan jasotzen den forma-
kuntza aberasgarria delako zure
esperientzia zabaltzeko. Auke-
ra eskaintza faltak bultzatzen du
gaztea kanpora joaten. baina han
lan egitea ere ez da hain erreza.



Itsaso
Tabernaria

Nik orain lana dut hemen eta ez
nintzateke joango, niretzat fami-
lia, lagunak... oso garrantzitsuak
dira. Baina ulertzen dut nire adi-
neko edo gazteagoa den jendea
atzerrira joatea lan bila eta dirua
lortzeko.
Nire lehengusina ikastera joan
da, baina Alemanian hemen baino
irteera gehiago ditu ingeniari lana
topatzeko.

?

_GALDERA

Zer iruditzen zaizu
lan bila atzerrira
joateko ugaritzen ari
den joera?

Proposatu zuk ere galdera
egunkaria@aiaraldea.com
helbidera idatzita

BIDEA WEB-GUNEAN



Maria
Tabernaria

Nik lanagatik migratu dut, Ar-
gentinatik hona etorri naiz, ber-
tako egoera ekonomikoa ez dela-
ko ona.
Hiru urtez egon nintzen ilegal-
ki hemen, paperak egin ahal izan
nintuen arte.
Abenturaren bila etorri nintzen,
lehen urteak gogorrak izan ziren
baina gero zauden tokira molda-
tzen zara.



Josune
Jubilatua

Nire semearen lagunek seku-
lako karrerak egin eta alde egin
behar izan dute. Bat Alemanian
dago, beste bat Estatu Batuetan..
Hemen dagoen panoramarekin
han geratuko direla diote. Legea-
rekin kanpoan 3 hilabete bazaude
eskubideak galtzen dituzu. Horrek
jendea ez itzultzea ekarriko du.



Julen
Garraiolaria

Hemen ez balego lanik kanpora
joango nintzateke dudarik gabe.
Ni garraiolaria naiz, Bizkaitik mu-
gitzen naiz baina nazioarteko bila-
katuko banindute onartu egingo
nuke; lana delako. Traba nagusie-
na etxetik urrun zaudela da, ez-
delako berdina etxean lo egin edo
aste batean etxerik ez zapaltzea.
Gauza dagoen bezala normala da
jendea kanpora joatea.

TWITTERen

#albisteizanda

Izkuen (Nafarroa) izandako
etapan **@julenlatorre k**
irabazi du **@Aiala_S_C** bidez

@IritaMaranova Nerbioiko
ur jauzira bidean, Unzatik
@aiaraldea



@zuriaskatasuna
#martxoak 8 Emakumearen
Nazioarteko eguna
Amurrión



@Aiala_S_C Hau bai da
txirrindularia!! Berriz irabasi
du etapa **@ini_elosegui**-k
Artziniegan. **#AiarakoBira**

@aiaraldea Ane Saizek
Resurreccion Maria Azkue
Literatur lehiaketan 3. saria
eskuratu du

TIRADA: 10.000 Ale. Lege gordailua: BI-1230-2013
ERREDAKZIO LANTALDEA: Aiaraldea Komunikazio Leihoko Erredakzio Saila

E-POSTA HELBIDEAK: egunkaria@aiaraldea.com / iragarkilaburrak@aiaraldea.com
publizitatea@aiaraldea.com / agenda@aiaraldea.com / agurrak@aiaraldea.com

OHARRA: Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Argitaratzailea: Aiaraldea Komunikazio Leihoa

Nerbio Kalea 1, 3. esk. Laudio. Araba. 01400 Tel: 94 656 85 54
Aiara Etorbidea 9, Amurrio, Araba, 01470. Tel: 945 06 66 84
Sakeleko Telefonoa (WhatsApp): 688 848 152

_gutunak

Uda bete abentura euskaraz eskura!

Uztai Largatxa eta Izar Mendiguren

Euskal udalekuak 60.hamarkadan antolatu ziren lehenbizikoz,
ikastolak sortu zirenean. Frankismo garaia izaki, euskaraz hitz
egin eta ikastea debekatuta zegoen. Alabaina, hori ez zen traba
iza eta Barrian, Saturraranen, Deban, Ozaetan.. udalekuak antolatu zi-
tuzten orduko euskalzaleek Euskal Herriko haurrek udan ere euskaraz
jolasteko aukera izan zezaten. Horrela sortu ziren euskal udalekuak,
auzolanean. Auzorik auzo eta herririk herri lanean. Eta horrela sendo-
tu dira. Izan ere, hasieratik udalekutan parte hartu duten sukaldari eta
hezitzaileek borondatez egin dute lan, ilusioz. Gaur egun, hiru etxe edo
euskal udaleku daude: Abaigar, Goñi eta Bernedo. Horretarako, bai-
na, urtean zehar auzolanean aritzen gara nola aterpetxea hala ingurua
atontzen. Aurten, guztira, 11 txanda egingo dira, 1996tik 2007ra jaio zi-
ren haurrentzat. Zuentzat. Guretzat. Informazio guztia [www.euskalu-
dalekuak.org](http://www.euskalu-
dalekuak.org) webgunean duzue, baita izen emateko aukera ere! Mar-
txoaren 10etik apirilaren 13 arte egongo da horretarako aukera. Guk
dagoeneko txanda aukeratu dugu! Irrikitan gaude Euskal Herriko haur,
sukaldari eta hezitzaile bihurri, jator eta prestuekin euskaraz, naturaz
eta udaz gozatzeko. Eta zuek? Zeren zain zaudete?

Euskal Eskola Nazionalea eraikitzen

Samuel Pasandin (Aiarako Ikasle Abertzaleak)

Wert, Iribas eta Uriarteri denbora agortu zaie. Sistema kapi-
talista patriarkalaren menpe dagoen hezkuntzan erreforma-
mak proposatzen dituzte etaitsu, gor eta mutu nahi gai-
tuzte baina gu argi utzi dugu ez garela isilik geratuko eta klaseetatik
atera eta kaleak beteko ditugula! Ikasleok ez ditugu inolako erreforma-
rik onartuko, ezta egungo hezkuntza sistema ustela ere. Mobilizatuz
elitista, merkantilista eta zentralizatzailea den hezkuntza ereduaren
kontra jokatu dugu. Ikasle Borrokaren fase berri hontan egungo ere-
dua errotik aldatu dugu. Mobilizazio Fase Iraunkorraren baitan Aia-
raldean martxoaren 13an ta 14an Amurrión zein Laudion mobilizazioak
deitu ditugu. Baina guzti hau ez da hemen amaitzen, martxoaren 27an
zita oso garrantzitsu bat dugu Euskal Ikasleok, Ikasle Greba Orokorra
deituko dugu! Aiaran eskualdeko manifestazioa egingo dugu Laudion
12:00tan eta gurea den hezkuntza euskaldun, ezkertiar eta feminis-
ta aldarrikatzeko dei egiten diogu ikasle orori. Ikasleok Euskal Herriak
behar eta nahi duen hezkuntza eredu propioa eraikitzen hasiak gara!
Ikastetxez ikastetxe, herriz herri Geroa Marrazteari ekin diogu, Euskal
Eskola Nazionalea eraikitzen hasi gara! Hemen da Ikasle Iraultza!

_herriz herri

Arakaldo

Ondasunegik udalari 36.000€ zor zizkiola salatu du Bilduk



Arakaldoko udaletxea Argakia: aiaraldea.com

ERREDAKZIOA

Ondasunegienpresak Arakaldoko Udalarekin zuen zorra kitatu du. Hala ere, Bilduk egoeraren salaketa egin du. Batetik irakurketa kualitatiboa egin du, Victor Egia alkatea eraikuntza enpresa horretako administratzaile solidarioetako bat delako. Eta, bestetik kuantitatiboa, guztira ustezko zor horrek ia udal aurrekontuaren laurdena suposatzen duelako. Polemika 2006an Madariaga auzoko 4.egikaritze unitateari dagozkion familia bakarreko lau etxebizitzaren hirigintza-aprobetxamenduekin hasi zen. 2009an etxebizitza guztiak saldu ta zeuden eta enpresak 12.003,73 euro ordaindu behar zituen erabile-

ra lizentziagatik. Arakaldoko Bildukoen aburuz, ez dahori zor bakarra: "Badago beste zor bat 24.000 eurokoa Elexalde-Madariaga auzoan 6.egikaritze unitateari dagokiona. Alkateak 2009ko uztailaren 16an sinatutako dekretu bategatik Ondasunegi enpresari jada amaituta dagoen familia bakarreko etxebizitza bat eraikitze obra lizentzia eman zion".

Bilduko ordezkariak orain arte zorrazergatik ez den ordaindu azaltzeko eskatu zuten udal osoko bilkura. Horregatik, berehala %20ko interesa ekarriko lukeen premiamendu bidea abiaraztea proposatu zuten Bildukoek, "horren bitar-

tez, zorraren indarraldia luzatuko litzateke eta zorra kobratzeko bide eraginkorragoak bilatu ahal izango lirateke". Eraberean, Elexalde-Madariaga auzoan 4 etxebizitza eraikitze obra lizentziako irregular-tasunak salatu zituzten koalizio abertzaleko kideek: "Obra honengatik Ondasunegi enpresak udal diru kutxari 22.262.50 euroko ordaina egin beharra ekarriko luke. Bereziki larria iruditzen zaigu obra lizentziaren jakinarazpena ez jasotzea, alkatea den Ondasunegi E.M.-ko administratzaile solidarioak jakinarazpena ezagutzen zuenean".

Alkatearen adierazpenak

Victor Egia alkateak Aiaraldea Egunkariari adierazi dionez, udaleko teknikariekin etxebizitzak eraikitze bi fase adostu zituzten: "Arakaldo oso herri txikia da eta etxebizitza batzuk egin behar ginituen. Unitatea proiektua aurkeztu genuen baina ez zen obra garatu". Egiak baieztatu duenez, zorra kitatuta dago: "Udalbatzan %5eko interesa epeka ordaintzea onartu zen, eta obren lizentziari uko egitea". Horren harira, Egiak argitu du krisi ekonomikoagatik obra lizentzia etetea erabaki zuela Ondasunegik: "Udalari ahoz jakinarazizitzaion, idatzizez. Etxebizitza horiek salgai daude, jendeak interesa badu soilik eraikiko ditugu".

Aiaraldea

Garraio zerbitzuak areagotuko dituzte



Autobus bat ateratzeko prest Argakia: aiaraldea.com

ERREDAKZIOA | Miren Ayesa Aranoa

Arabako garraio publikoa hobetzeko asmoz, Arabako Foru Aldundiak Herrien Arteko Garraioko Sare Berriko aurreproiektua argitaratu zuen otsailaren 26an Arabako Aldizkari Ofizialean. Helegiteak jartzeko epea martxoaren 27an bukatzen da.

Arabako garraio publikoaren inguruan egindako diagnostikoan ondorio batzuk atera dituzte. Horien artean herrien arteko mugikortasunaren ingurukoak daude.

Horrela, Arabako garraio publikoak erregularitasunez funtzionatzeko arazoak dituela, ordutegiak ezegokiak direla, ibilbideak luzeak eta eskabide gutxi duten herrietatik pasatzen direla, eta erabiltzen den flota handiegia dela ondorioztatzen du txostenak.

Gainera, garapen teknologikoa oso murrizta da, batez ere tarifari dagokionez. Txostenean jaso duteenez, Gasteiz barruko ibilbideak luzeak direla eta, erabiltzaileak ere kexu dira.

Gauzak horrela, eta garraio publikoa erabiltzeko eskuragarritasuna hobetzeko asmoarekin, osagarriak izango diren bi sare osatu ko dituzte: herrien artekoa eta eskualdekoa.

Gainera, biztanleria kopuru gehien dituzten herrietan eta puntako orduetan garraioaren maiztasuna hobetuko dute eta garraio moten hobekuntza egingo dute.

Bestalde, proposatutako neurrien artean daude ere flotaren tamainaren eta okupazioaren hobekuntza. Hain zuzen ere, ibilbidearen sinplifikazioa eginez, bidaien denboraren murrizketa; tarifa sistema integratu bat egitea; ingurugiro eta

segurtasunean hobekuntzak; eta Gasteiz barruan egiten diren geldialdiak eta ibilbideen arrazionalizazioa daude.

Aiaraldeko berrikuntzak

Bai Araban eta baita eskualde barruan ere, Amurrio eta Audio dira bidaiari gehien biltzen dituzten herriak. Desplazamenduak lana edota ikasketengatik izaten dira gehien bat eta eskualdetik Gasteizera egiten dira.

Aiaraldean egingo diren hobekuntzen artean lan egunetan autobus maiztasuna areagotzea egongo litzateke. Hala, Gasteizera joateko autobusak 11 edota 14 zerbitzu izatetik 15 izatera pasatuko lirateke Amurrioren; Audio 13tik 16 izatera, eta Luia 7 edota 9 egotetik 7 edukitzera igaroko lirateke.

Proposamenaren arabera asteburuetan ere Amurriok eta Audiok 3 zerbitzu izatetik 7 izatera pasatuko dira eta Artziniegak bitik laura. Gainera, Luia ondok 4 zerbitzu izango litzuke eta Okondok beste lau.

Urduñainguruko herriak eskualdeko sarera pasatuko lirateke.

Aurreproiektuaren arabera, Aiaraldean 3 linea egongo lirateke: Gasteiz-Amurrio-Audio; Artziniega-Amurrio-Audio-Okondo, eta asteburuetan Gasteiz-Izarra-Amurrio-Audio.

Herriarrei garraio plana azaltzeko bilera egin zuten atzo Artziniegan.

Gaur, aldiz, Aiarako udaletxean aurkeztuko dute 18:30ean.

Okondoko data zehaztu gabe badago ere egiteko asmoa dutela adierazi du Aintzane Arbaiza goitiak.

Orozko

Zubiaur Eraikuntzak entitateak blokeatuta jarraitzen du Olaguenagaren dimisioaren ostean

ERREDAKZIOA | Lukas Pasandin

Azkenengo udal osoko bilkura Zubiaur Eraikuntzak sozietatearen egoera konpontzeko balio behar zuen, baina Juan Antonio Olaguenaga alkate ohiak bere dimisioa aurkeztu duenez, ez da aurreapausorik eman.

Adiek epaitegian salatu eta gero, Olaguenagak sozietatearen administrazio kontseilua utzi du. Horren ondorioz, kontseilari nahiko ez izategatik, Adiekoak aspaldi joan zi-

ren eta Zubiaur Eraikuntzak blokeatuta dago. Adiek bere proposamena zabaldu du bideo baten bitartez eta EAJk berea aurkeztu zuen martxoaren 1ean. Jeltzaleek Zubiaur Eraikuntzak mantentzeko helburua daukate, "herriaren onurarako tresna baliagarria izan delako". Saldu gabe dauden 9 etxebizitzentzat lau urteko alokairu proposatzen dute, alokairuaren diru kopuru osotik erdia alokairua or-

daintzeko izango litzateke eta beste erdia etxebizitzaren prezio osotik, zati bat ordaintzeko. Lau urte horiek pasatu ondoren pisua erosteko aukera egongo litzateke.

Bildu EAJren proposamenarekin ados dago, baina uste du alderdi nagusiek beraien arteko adostasuna bilatu beharko dute lehenik eta behin, blokeo egoera gainditzeko. Hortaz, oraingoz, Zubiaur Eraikuntzaken geroa kolokan dago.



_herriz herri

Aiara



Gorobel mendizerran behiak ura edaten Argazkia: aiaraaldea.com

Burgosek Gorobelgo lurrak hesituko ditu abereak ez sartzeko

ERREDAKZIOA | Jaione Pagazaurtundua

Burgoseko herri bik -Teza de Losa eta Lastras de Losa- adierazi dute bere lurraldeak itxiko dituzte la Aiarako abereak sar ez daitezen.

Horri alternatiba erantsi diote. Aiarak abere kopurua mugatuz gero, berriro irekiko lituzkete mugak. Aiarak kontrola ezarri dezan 3 urteko trantsizioa eskaini dute Burgoseko herriek; bitartean akordio puntaletara heltzeko atea irekitu egongo da. Egindako bileraren

helburua Burgos eta Arabaren eskumenak zeintzuk diren definitzea izan da, abereek leku batean edo bestean belarra jateko duten eskubidea definitzea, hain zuzen ere. Historikoki definituta zeuden eskubide horiek aldatzen joan dira: egun Burgosen abeltzaingutxiago daude eta Aiaran aldiz gehiegi, Josu Artetxe Aiarako alkateak aitortu duen moduan. Desberdintasun horrek Burgoseko erakundeen jarrera al-

daketa eragin du alkatearen hitzetan. Oreka bilatzea izan da, beraz, bileraren helburu nagusia. Egin-kizun konplexua da: abereen eta abeltzainen eskubideak bermatu behar dira eta mugak aztertu eta hauek definitzerakoan adostasuna lortu. Eskumenen aldetik muga eta eskubideak definitzeko bilera teknika egin zen Aldundien artean. 1984an sinatu zen akordioan aipatzen ziren muga eta eskubide hauek zeintzuk diren argitzeko.

Burgoseko herriek itxierak egin hasteko asmoa Aiarako udalari jakinarazi ziotenean Aldundiarekin harremanetan jarri ziren eta Aldundia Gaztela eta Leongo Juntarekin harremanetan jarri zen. Otsailaren 26rako adostutako bilera elkarrizketa horren ondorioa da, beraz. Josu Artetxeren aburuz elkarrizketa eta eztabaida hauek denbora iraun dezakete Burgoseko eta Aiarako abeltzaintzaren arteko desoreka nabaria delako eta tartean zenbait tasen ordainketak, mugen definitzea eta abar daukelako. Bi aldeen arteko zintzotasunaren beharra adierazi du bi aldeentzako positiboa den akordioa lortzeko. Bestalde, Arabako Foru Aldundiak beste baldintza bat aldatu nahi du Gorobel mendilerroaren erabilerari dagokionez. Orain arte abeltzain asko haien animaliak apirilean igotzen hasi dira. Foru Aldundiak adierazi du oreka mantentzeko eta ingurumena ez urratzeko beharrezkoa dela igoera hori atzeratzea eta maiatzaren 1ean hastea.

Okondo

Kultur etxean, errepidean eta bolatokian obrak egingo dituzte

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Okondoko kultur etxean, bolatokian eta Ugaldetik Landetara doan errepidean obrak egingo dituzte. Azkeneko udalbatza onartu ziren egitasmoak eta abendua bitarteko garatuko dira. Lanak aurrera eramateko hainbat diru-laguntza jaso dituzte.

Okondoko kultur etxean igogailu jarriko dute. Izan ere, jende asko igarotzen da bertatik. Kanpoaldearekiko harremana hobetzeko bi aldaketa egingo dituzte: errepide nagusiarekin lotura, eta aparkaleku-

tik elizarako bide zatia. "Nibelak jaitziko dira, kultur etxerako sarbiderako pasarela jarriko da...", adierazi du alkateak. Lehen solairuan, aldiz, igogailu jarriko dute. Bestalde, areto guztietan irisgarritasun legea betetzeko komunak eta ateak erreformatuko dituzte. Aurrekontua 260.000 euro ingurukoa da.

Bolatokian aldiz estalkia jarriko dute. Horretarako, auzolana baliatuko dute. Izan ere, Arabako Foru Aldundiak diru-laguntza berezien bidez materiala ordaindu

egingo die. Eskulana, aldiz, herri-tarrek egingo dute. Alde batetik lateral bat itxiko dute, egurra eta kristala erabiliz. Beste aldetik, kanaloiak eta bajanteak jarriko dira. Baita lurra, elektrizitatea eta ura konpondu ere. Bestalde, bolatokira sartzeko harrizko bide bat egingo dute. Egingo den azken inbertsioa errepidean konponketa izango da. Batetik, Ugaldetik Landetara eta bestetik Ibarra baserriko bidekoa. 35.000 euro balioko du obrak eta abendurako bukatuta egongo da.

Laudio

Zumalakarregi kalea konpontzen ari dira



Zumalakarregiko zebrabideetan aldaketak egingo dira Argazkia: aiaraaldea.com

ERREDAKZIOA | Aitor Fernandez de Pinedo

Laudioko Udala Zumalakarregi etorbideko zebrabideak irisgarritasuna sustatzeko legediak ezarritako baldintzara hobetzeko lanei ekin die egunotan. Aldaketak zebrabideetan, faroletan eta espaloietan egingo dituzte.

Lau pasabide egokituko dituzte oraingoan eta aldi berean espaloietan suertatutako konponketa txikiak ere bideratuko dituzte udal langileek.

Honez gain kalearen irisgarritasuna hobetze aldera zenbait ka-

le-argi tokiz aldatuko dituzte. Bestalde, duela urte batzuk herriko kale nagusiko zuhaitzak ordezkatzeko abiatu zuen prozesuari heldu dio ere Udalak eta Ugarterako bidegurutzetik Baias kalearen bidegurutze bitarteko katalpak kendu eta likidanbar ale berriak landatzen ari dira.

Lehen fasean Zumalakarregi etorbidean landatutako likidanbarren ingurua egokitzen ari dira ere, zuhaitzak inguratzen dituen lur-laukia asfalto porotsuz estaliz.

Kultur plana egiteko tailerra elkar-teentzat

ERREDAKZIOA | Aitor Martinez Ibarrola

Bi astez luzatu da Laudioko auzo batzarren burutze prozesua. Bertan, ohiko eskaera eta proposamenen atalaz gain Laudio 2025 oinarri estrategikoen inguruan mintzatu dira. Zehazki, herriaren urte horretarako garatu nahi diren bederatzi proiektuak aurkeztu dituzte.

Proiektu batean Kultura Planaren beharra azpimarratzen da. Udaleko kultura saila dagoeneko lanean hasi da berau garatu ahal izateko.

Prozesurako EHUko Parte Hartuz ikerketa taldearen laguntza izango dute. Ibilbide horretan kokatzen da atzokultura etxean deituta, ko tailerra. 18:30ean hasi eta bi orduz luzatuko da. Talde kultural guztiei helarazi zaie bertan parte hartzeko gonbidapena. Tailerrean au-

rre diagnostikoa aurkeztuko dute garapenean sakontze asmoz. Izan ere, Kultura Planaren eratzeko prozesua diagnosi prozesuan dago egun, eta Udaletik jakinarazi zuten beza-la parte hartze bidez garatuko da. Aipatutako taileraz gain, larunbatean kalean postu bat jarriko dute jendearekin kontaktu zuzena izan asmoz. Horren baitan ekintza desberdinak aurreikusten dira.

Auzo asanbladak

Bestalde, udaletik baikor azaldu dira auzo asanbladak izandako harremanen inguruan. Aurreko deialdiekin konparatuta gora egin du bertaratutako kopuruak, Latio-rroan salbu. Gainera, ekarpenen aldetik ere asko jaso dituztela adierazi dute.



_herriz herri

Arrankudiaga-Zollo



Nerbioi ibaiaren ibilgua Arrankudiagan Argazkia: aiaraaldea.com

Herri galdeketaren bidez erabakiko dute uraren kudeaketa

ERREDAKZIOA | Markel Iturrizar

Arrankudiaga-Zolloko udalak martxoan zehar egingo ditu auzo batzarrak. Auzo batzar horien gai nagusia ura izango da. Etorkizuneko uraren kudeaketaz arituko dira bileretan, udalak ez baitauka argi kudeaketa horretan orain arteko bidea jarraitu; hau da, udalak berak kudeaketaren ardura izaten jarraitu edo ur partzuergoan sar-

tzea. Horretarako ezinbestekotzat ikusten du herritarren parte-hartzea, herritarren nahia zein den jakiteko.

Herri-galdeketa

Itziar Duoandikoetxea Arrankudiaga-Zolloko alkateak iragarri du uraren kudeaketa nola egingo den herritarrek erabakiko dutela. Ho-

rretarako herri galdeketa antolatuko dute. Baina lehenik eta behin, auzo batzarrak eta informazio kanpaina egingo dituzte.

Dagoeneko, udal ordezkariak auzo ezberdinetako herritarrekin hasiak dira biltzen. Arene eta Zubikoko auzotarrekin bildu dira, baina herriko auzotar guztietara heldu nahi dute.

Herritarren kexa, kezka, ekarpen edo iritziak jasotzeko diren batzar horiek alkatea eta zinegotziak izango dituzte dinamizatzaile.

Batzuk, dagoeneko egin dira. Arene, Zubiko, Atxandi, Goizaga, Osanar eta Otxandurikoak daude horien artean. Bidekurtze, Elelalde, Garondo, Goizarri, Iberlanda, Telleri, Zabale eta Zelaiko auzoetako bizilagunek martxoaren 16an izango dute zita. Bilera irekia gizarate etxeko areto nagusian izango da.

Uribarrin, aldiz, astelehenean elkartuko dira. Bakiola, Labeko, Ormetxe eta Batxuetakoak, berriz, ostegunean. Bilera horiek ere gizarate etxean egingo dituzte. Arbi de, Gastaka eta Zabaltzar inguruetan bizi direnek, aldiz, udaletxean izango dute zita martxoaren 27an.

Zollokoa izango da azken auzo batzarra; martxoaren 30ean egingo dute, 12:00etan, herriko txokoan.

Itziar Duoandikoetxeak azaldu duenez, Atxeta eta Zuloagako bilerarako eguna oraindik ez dute ezarri.

Horregatik, eguna zehazten duen ohar baten bidez iragarriko da.

Amurrio

%4,5eko jaitsiera proposamena udal aurrekontuetan



Udal gobernua aurrekontuen zirriborroa aurkeztu du Argazkia: Gartzen Garaio

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru

Amurrioko Udal Gobernuak aurrekontuen inguruan duen proiektua eman die gainerako taldeei. Otsailaren 17an eman zien zirriborroa eta astelehenean bukatu zaie epea zuzenketak proposatzeko.

Aurrekontuetan eman den aldeketa nabariena diru sarrerei dagokio. Pasa den urtean aurrekontuak 13.639.907 eurok osatu bazuten, aurten 13.033.954 euro izango ditu Udalak. 600.000 euro gutxiago izango du tokiko erakundeak 2014an erabiltzeko, %4,5eko murrizketa, hain zuzen ere.

Diru sarrerak murriztu direnez inbertsioetan islatuko dira ondorioak. Gainerako atalak ez dira gehiegialdatu. Inbertsioei dagokionez, San Jose auzoko Zabaleko kalean egiten ari diren lanek aurrera jarraituko dute, Foru Planak jasotzen duen moduan.

San Anton plazaren estaldura

San Anton Plaza estaltzeko proiektua ere Foru Planaren baitan dago. Eta berehala ideia lehiaketari ekingo zaio. Aurkezten diren ideien artean 5 hautatuko dira. 2000 euroko diru-laguntza izango dute egile horiek bere egitasmoak garatzeko. Garailea herritarren parte-hartzeari esker erabakiko da.

Reforreko zelai artifizialeko harri-lubetan ere lanak egiteko asmoa du udalak, baita Cerrajería bidean ere. Jarraituko diren beste ildo batzuk HAPoa eta energia aurrezteak izango dira.

Josune Irabien alkatearen ustez aurrekontuak oso errealistak dira. Hori berresteko iragarri du bere aurreikuspenak betetzen ari direla pasa den urteko aurrekontuan. Izan ere, diru sarreretan %84,23an bete dira eta kitapenetan %81ean.

Urduña

Mugalde elkartearen 25.urteurrena, ekitaldiz blai

ERREDAKZIOA | Eunat Molinuevo

80. hamarkadan, Urduñan euskal kultura eta abertzaletasuna bultzatzeko elkargunerik ez zegoela ikusita, hainbat herritarrek Mugalde Kultur Elkartea sortu zuten. Bixintxo Azkarraga elkartekidearen hitzetan, "Sinesten dugun herria egiten ari gara. Gogoratzen duzunean zenbat egin dugun, oso polita da, merezi du: herria, kultura, euskara, Euskal Herria, herritartasuna, elkartasuna, maitasuna..." 25 urteotan askotariko eki-

men eta jarduerak antolatu dituzte. Besteak beste, hitzaldi interesgarriak, ikastaroak, erakusketak, omenaldiak, kartel-lehiaketak, herri-krosa, oso arrakastatsua den Otxomaioetako herri-bazkaria -500 pertsonentzat- eta Gabonetan egiten den azoka. Gaur egun 75 kide daude elkartearen. Azken asteak buru-belarri eman dituzte datozen egunetan ospatuko duten urteurrena antolatzen. Izan ere, egitarau oparoa prestatu dute martxoaren

19tik 22ra. Hilaren 19an abiatuko dituzte urteurrenaren inguruko ekitaldiak Mugalde Kultur Elkartekoek. Horien artean daude txokolata, ipuin kontalaria, Julen Arzuagaren hitzaldia, argazki proiektzioa, omenaldia... Festa nagusia martxoaren 22an egingo dute. Urtemuga ospatzeko mural herrikoia, elektrotxarangarekin poteoa, herri bazkaria eta kontzertuak antolatu dituzte. The Potes, Versen eta DJ Bull izango dira, besteak beste.

Eusko Jaurlaritzak eta Udala anbulatorio berriaren kokapena zehazten ari dira

ERREDAKZIOA | Miren Ayesa Aranoa

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Udala osasun zentro berriaren kokalekua zehazteko elkarlanean ari dira. Azken aldian bi instituzioek bilerak izan dituzte herriko anbulatorioaren kokapena finantzatzeko.

Bilera horietan osasun zentro berria kokatzeko bi aukera ikusi dituzte; bata oraingo anbulatorioetik gertu, Bañuetaibar kalean, dagoen sail pribatu bat izango litzateke. Bestea parketik gertu dagoen SAPUR 1 izeneko zonaldean

dagoen udal-sail bat. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak bi lekuek dituzten arazoei konponbide teknikoak emateko modua aztertzen dabil, helburuak kalitatezko osasun zentroa egitea delako.

Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako 2014. urterako aurrekontuetan anbulatorio berri bat eraikiko dela dago jasota. Bertan diotenaren arabera, osasun zentroak 330.000 euro jasoko lituzke eta finantzaketa eta egite lanak Gobernuaren esku egongo lirake.

_sozioekonomia



Raul
Arza
UGT-EUSKADI

_Argia

Foro ekonomikoa

Bilbok foro ekonomiko bat burutu du. Bertan haiek “negoziorako aukerak” deitzen dituztenei buruz eztabaidatu dute -hau gure kontura euren poltsikoak betetzen jarraitzeko gu gehiago estutzea besterik ez da-, baita lan erreforma berri baten beharrari buruz ere.

Ustezko “jakintsu” hauen errezetek gehien kaltetu duten herrialdeetako batean foro ekonomiko bat burutzea zentzugabekeria itzela da, probokazio bat ez denean.

Haien errezeta beti bera da: austeritate gogorra, soldaten jaitsiera eta zerbitzu publikoen desartikulatzea.

Guztia ezertarako ez: botere finantzarioak bere mozkinak handitzen jarraitzen du, hori bai, gure zergekin finantzatua; bere ustezko erregulazioa gustu txarreko txiste bat da.

Ohartu daitezela. Horretarako atera gara kalera, argi eta ozenki esateko: lan eskubideak eta eskubide sozialak murrizten dituzten austeritate politikak eten behar dira lehenbait lehen.

Asko eta asko dira lanposturik gabeko gazteak, geroz eta gehiago epe luzerako langabetuak, hilabete bukaerara iritsi ezin diren familiak eta euren etxea galdu dutenak ere asko; eta nork erreskatatzen ditu hauek?

Non gelditu da gizarte eredu europarra?

Oparotasun eta berdintasun eredu gisa jartzen zen hura?

Noiz, non eta nork izan behar du Europa gutxiago Txina gehiago izateko?

Eta batez ere, nork erabaki du eta non?

Eskubide Sozialen Karta aurkeztuko dute larunbatean

Eskubide Sozialen Karta aurkeztuko dute larunbatean eskualdeko hainbat herritan. Zehazki, Artziniegan, Urduñan, Amurrión eta Laudion egingo dituzte asanblada irekiak. Audioko eta Urduñako kultur etxeetan eta Artziniegako udaletxean egingo diren saioak 10:00etan hasiko dira. Amurrión, aldiz, martxoaren 29an egingo dute eztabaida saioa.

Kider enpresa itxiko dute sindikatuekin kalte-ordainak adostuta

Amurrioko Kider enpresak atea itxiko ditu. Hala erabaki zuten Gas-teizen egindako sindikatuen eta enpresaren nagusien arteko hitzarmenean. Enpresa honen itxierak beste 388 pertsona langabezira daramatza, jadanik krisiak aski kolpaturiko Aiaraldea edota Ezkerraldea bezalako eskualdeetan.

ESK eta LAB sindikatuek enpresari en utzikeria salatu dute.

Aplicako langileei urte bateko erregulazio espedientea ezarriko zaie

Aretako Aplicako enpresako langileei enplegu erregulazio espedientea ezarriko diete. Otsailean hamabost eguneko greba egin zuten. Euskaltel zen Aplicako bezero nagusia, baina lanak beste enpresa bati eman dizkionez lanpostuak kolokan egotera igaro dira. Egoeraren aurrean, enpresak urte bateko EEE jarriko du. Ondorioz, langilebartzuek enpresa uztea erabaki dute.



Amurrio Bidean Reforrekoko eraikinetan kokatua dago Argazkia: aiaraldea.com

Langabeziaren aurrean ekintzaileen autoenplegurako bideak ugaritu dituzte

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Negozio ideia propioak aurrera eramateko aholkularitza eta baliabideak eskaintzen dituzte Urduña, Audio eta Amurrioko garapen agentziek

Datuak hor daude: azken sei urteetan %146,65 igo da langabezia Aiaraldean. Igoera Amurrio eta Laudion nabaritu da bereziki, %17 eta %19,5eko langabezia tasak baitituzte bi herriek, hurrenez hurren. Lan eskasiaren aurrean, auto-enplegua soluzio bat izan daiteke, enpresa batengatik kontratatua izatera itxaron gabe, norberak bere negozio-idea propioa aurrera eramanda.

Aiaraldean badaude auto-enplegua sustatzeko asmoz sortutako erakundeak. Audioko Udalak Tokiko Garapen Agentzia sortu zuen

duela hiru urte, eta Amurrión ere antzeko sozietate bat dago, Amurrio Bidean izenekoa. Biek hala biek enpresa propioa sortzeko asmoz bertaratzen diren herritarrei orientazio eta laguntza eskaintzea dute xede, eta hainbat tresnabaliatzen dituzte horretarako. 2005ean Amurrión Bidean-ek “Reforamurrio enpresaldea” enpresa-hazitegia sortu zuen. El Salvador erreformatorioa zegoen eraikinean dago kokatua hazitegia. Sortu zenetik hona 22 enpresa aritu izan dira hazitegiaren bulegoak baliatzen, Amurrio Bidean-eko langile den Marianen hitzetan. “Berez, egoera ekonomikoa gorabehera, hazitegiak geroz eta aktibitate gehiago dauka”. Marianek azaldu du lau direla gaur egun hazitegiko espazio

eta azpiegiturak erabiltzen da biltzan enpresak, baina ekintzaile gehiago interesatuak daudela eta euren eskaerak aztertzen dabiltzala gaineratu du.

Laudion orain arte ez da egon hazitegirik, baina Tokiko Garapen Agentziak bat jarriko du martxan aurretik. Agentziako kide den Asun Duñabeitiak jakinarazi du “hemen-dik gutxira” hasiko direla hazitegiaren parte hartzeko baldintzak (erabilerara arautegia, bulegoen alokairuen prezioak...) zehazten. Jada martxan dagoena Enpresa Berrien Kluba da, enpresa berriei lehen bi urteetan aholkularitza eta formazioa eskaintzea helburu duena.

Amurrio Bidean-ek, bere alde-tik, Ekintzaileen Laborategia sortu zuen 2010ean. Doako espazioa da, azpiegitura informatikoz zein kontsultarako materialez hornitua.

Ekintzaileek euren negozio ideia garatu ditzaten pentsatua dago, eta epe laburrean horrelako egitasmo gehiago aurkezteko asmoa dutela aurreratu du Marianek: Co-working aretoak ireki nahi dute aiparilean. Espazio partekatua bat izango da, zeinetan hainbat ekintzaile egon ahal izango diren, “sormen eta lan-kidetza giroa” sortuz.

Oztopoak oztopo

Enpresa berriak sortzeko baliabideak daudenarren, trabak ere badaudela aitortu dute Duñabeitiak eta Marianek. Finantziarioa da traba horietako bat. “Badaude ekintzaileentzako finantziario bereziak eskaintzen dituzten bankuak”, azaldu du Marianek, “baina sarritan bermeak eskaintzen dituzte, pertsona askok eman ezin ditzaketen bermeak”.

Diru-laguntzak egon badaude, proiektuaren izaeraren zein eskintzailearen ezaugarrien arabera-koak diren arren. “Ekintzaile” izeneko programak negozio-ideiak martxan jartzeko diru laguntzak eskaintzen ditu, 30.000 eurotakoak izatera iritsi daitezkeenak.

Idea berritzailea eta industria edo zerbitzu sektorearen baitakoa izatea da diru-laguntzara horretarako aurkezteko baldintza. Arabako Foru Aldundiak, bere alde-tik, 20.000 eurorainoko diru-laguntzak eskaintzen dizkie ideia berritzaileak garatzeko asmotan dabil-

tzan enpresa sortu berriei, martxan jartzeko egin beharreko inbertsioei aurre egiteko. Eusko Jaurlaritzak ere antzeko laguntzak eskaintzen ditu, eta 2014ko aurrekontuetan ekintzaileentzako diru-laguntzak sartzea eskatu dio Audioko Garapen Agentziak udalari.

Halako laguntzak enpresa sortu berrientzako “sostengu handia” direla uste du Marianek, baina gaineratu du ezin direla finantziarioaren oinarria izan, gehienak inbertsioak egin ostean ematen dire-lako. “Negozio-plana egiterakoan diru-laguntzak aintzat ez hartzea gomendatzen dugu”. Proiektuaren bideragarritasuna ziurtatzea, hori da egin beharreko lehenbiziko pausoa, Duñabeitiaren hitzetan. Audio zein Amurrioko agentziek bideragarritasun azterketa egin eta negozio-idea martxan jartzeko aholkularitza zein baliabideak eskaintzen dituzte. Hala, euren bulegoetara bertaratzeko deia luzatu diete Duñabeitiak eta Marianek ekintzaileei. “Iniziatiba hartzea eta beldurra kentzea” gomendatu du Marianek, eta Paulo Coelho-ren bi esaldi ekarri ditu gogora: “ekiten batzuetan irabazi eta beste batzuetan ikasi egiten da” eta “gauza bakar batek bilakatzen du amets bat ezinezko, porrot egitearen beldurra”.

Urduñako Behargintzan ere, 2003tik lantzen dituzte garapen sozioekonomikorako programak. Batetik, enplegua sustatzeko. Eta, bestetik, formakuntza eskaintzeko. Era honetan bilatzen dute kompetentzia areagotzea, enpresaberriak sortu eta laguntzea, aholkularitza zerbitzua, agroekologiaren garapena...

Ekintzaile izateko ikastaroa

Audioko Garapen Agentziak ekintzaile izateko ikastaroa antolatu du martxoaren 19an eta 20an. Tailerra negozio batean has-te pentsatzen ari diren pertsonen izendatua dago. Saioak 9:00etatik 13:00etara izango dira. Urduña, Amurrio eta Audioko bulegoetako baliabideen inguruan informazio gehiago jaso nahi izanez gero telefono hauetara deitu liteke: Urduñako Behargintza 94538 4050, Audioko Garapen Agentzia 944034980 edo Amurrio Bidean 945891721.

DOWN SINDROMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Erritmo ezberdina, aukera bera

Orozkoko Jesus Maria de Ibarra eskolan eta Menagaraiko Amor Misericordioso egoitzan, besteak beste, down sindromea duten emakumeekin egiten dute lan. Baita Apdema elkartean ere. Eskualdeko langile zein senideek aukera berdintasuna nabarmendu eta eskatzen dute.



Down Sindromearen Nazioarteko Eguna martxoaren 21ean izango da Argazkia: Nacho Ubero

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren Cosgaya

Down sindromea geneetako 21. kromosoman hiru kromosoma agertzearen ondorioz gertatzen da. Martxoaren 21ean izango da Down Sindromearen Nazioarteko Eguna. Ezaugarrien artean adimen erritmo ezberdina eta bereizgarri fisikoak daude. Jaiotzetik antzematen da. Izena, John Langdon Haydon Downi zor zaio, berak deskribatu baitzuen lehen aldiz 1866an.

Historiaren atzean, ordea, makina bat istorio ezkututzen dira. Baita Aiaraldean ere. Izan ere, eskualdean down sindromea duen pertsona ugari dago. Horietako batzuk Menagaraiko Amor Misericordioso eskola eta adimen psikiko bereizgarriaren egoitzan bizi dira. Beste batzuk, Orozkoko Ibarra auzoan kokatuta dagoen Jesus Maria de Ibarra eskolara joaten dira. Behar bereziak dituzten pertsonekin lan egiten duten elkartek ere badira; Apdema eta Asasam kasu ⁽¹⁾. Hala ere, down sindromea duten pertsona guztiek ez dute horietan parte hartzen. Ikerketek erreparatuz, 800-1.000 jaioberrietatik batean agertu ohi da sindromea.

Ane Letonak gertutik ezagutzen du, nebari esker: "Jaio zenean nik 7 urte nituen. Gurasoek neba erritmo aldetik beranduago haziko zela esan zidaten, ez besterik. Denborarekin, tarteka Gasteizera zihola ikustean zerbait berezia zela ohartu eta gurasoek dena azaldu zidaten. Hasieran beldurra sentitu nuen, ezjakintasunagatik batez ere". Jendartean ere ezjakintasun

handia dagoela uste du Ane Letonak. Bazterketa saiakerak ere bizi izan ditu: "Jendeak oraindik ez du ondo ikusten adimen funtzionala duen pertsona ikastola edo gela arruntetara joatea, kanpoan nahi dituzte. Hala ere, denetarik dago, pertsona guztiak ez dirahain itxiak".

Aukera berdintasuna

Jendeari estereotipo guztiak alboratzeko eta aukera berdintasuna aplikatzeko eskatuko lioke. Izan ere, kalean hipokresia askorekin egin du topo: "Lastima begiradak askotan ikusten ditugu. Jendeak ez dio beste umeek egin ditzazketen gauzak egiteko aukerarik ematen".

Praktikoki, ordea, dena egiten dute. Endika Letonak, esaterako, hockeyan jolasten du, ikastolako futbol taldean aritzen da... "Gu bezalakoak dira, pertsonak gara denak. Endikak, jendea begira gertzen zaionean ea tximinoak dituen aurpegian esaten die", erantsi ⁽²⁾ du.

Heziketa prozesuari dagokionez, bide bikoitza jorratzen dute. Bate-tik, ikastetxekoa. Eta, bestetik, autonomia lantzeko fundazioek eskaintzen dutena. "Endika ikastolara egunero doa, baina asteen behin Bilborada da. Osogusturajoa ten da. Bilakaera izugarria da, ziurtasuna irabazten dute eta ikasten dutena praktikan jartzen dute".

Familiak eragin handia duela argi du Ane Letonak: "Guk hasieratik berdintasuna eta integrazioa bilatu dugu. Horregatik da horrelakoa Endika, asko borrokatu dugu bera

Estereotipo eta aurreiritziak hausteko beharra eta aukera berdintasuna aldarrikatu dute Down Sindromea gertutik ezagutzen duten senide, elkarte eta langileek.

beste guztiak bezalako umea izan dadin". Nebari esker berak ere asko ikasi duela dio. Baita inbidia kutsu ⁽³⁾ bat duela aitortu ere; "bera bezain zoriontsua izan nahiko nuke".

Enara Garcia eta Zutoia Latatu ere iritzi berdinekoak dira. "Gauza guztiak baloratzen dituzte, asko ikasten da haiekin", dio Garciak. Ibarako egoitzan egiten dute lan. Normalean 80 lagun inguru egoten direla Orozkoko eskolan diote, guztiak emakumezkoak. Horietatik 15 inguruk dute down sindromea.

Zutoia Latatuk dioenez, pertsona bakoitzak mundu bat da: "Jendeak poltsa berean sartzen du dena, baina bakoitzak bere istorioa du".

Autonomia lortzeko familiak zerikusia handia duela dio Garciak: "Etxean irakatsitakoaren arabera batzuk ez dira mugitzen. Beste batzuk astebururo haien kasa joaten dira senideekin bazkaltzera. Batzuk nik baino hobeto egiten dute igeri". Horregatik, Zutoia Latatuentzat hezitzaileen jokaera galkoa da: "Gauzak egiten utzi behar zaie, gai dira eta bestela ez diegu ikasten uzten".

Cristina Tornerok, aldiz, Menagaraian egiten du lan. Eskolak 75 urte ditu; "gerra garaian umezurtzentzako sortu zen". Egun, 52 emakume dituzte egoitzan. Horietatik 14, down sindromea duenak. Goizetan eskolak ematen dituzte. Arratsaldetan, aldiz, aisialdirako tailerrak. Gazteenak 13 urte ditu, eta zaharrenak 55. "Oso lan aberasgarria da, ematen dudana baino askoz gehiago jasotzen dut", dio.

Enara Garciarengan jendearen pena begiradak poz bilakatzen dira haiengandik sentimenduak transmititzen ikasi duela dioenez: "Bat-zuei pena ematen diete down sindromea duenak, baina txikitatik irakatsiz gero erabat autonomoak izan daitezke. Guztiok ditugu behar berezi eta erritmo ezberdinak". Talde handietan ateratzen direnez, jendearen erreakzio baztertzailerak askotan ikusten dituzte. Horregatik, Cristina Tornerok jendeak aurreiritziekin epaitzen dituela nabarmendu du: "Guztion laguntza behar da, haien gaitasunak garatu eta aurrrera egin dezaten".

Martxoaren 21ean, Down Sindromearen Nazioarteko Egunean ez dute ezer berezirik egingo, "guztiok baikara berezi".

Hiztegia: kasu ⁽¹⁾, bezala / erantsi ⁽²⁾, gaineratu / kutsu ⁽³⁾, toke.



Isabel

Boveda

KULTURARTEKO ZUBIAK

—Argia

Gure esku dago

Durango eta Iruñea batuko dituen Gure Esku Dago dinamika-karen baitan murgilduta gaude. Katalunia, Eskozia eta munduko beste hainbat herrialde bezala herri gisa zer izan nahi dugun erabakitzeko eskubidearen alde, nola antolatu edo bizi nahi dugun erabakitzeko. Kanpotik inork inposatu gabe guk erabaki nahi dugu.

Espainiar eta Frantziar estatuen ukazioagatik Euskal Herriak asko sufritu du, baina askatasuna lortzeko gure ametsa geldiezia da.

Emozio berezi bat sentiarazten dit ekainean guztion eskuek Durango eta Iruñea lotuko dutela pentsatzeak, baita Euskal Herriko hamaika txokotan horren alde lanean dauden asko daudela sentitzeak ere.

Guzti honek aurreneko Korrikak sortu ziren garaia dakartzkit gogora, nire semeak oso txikiak zirenekoak, egunero egiten zen etapa egunkarietan markatzen genuenetakoak. Atsedenean gabe euskararen alde jendea etengabe korrika zegoela jakiteak sekulako zirrara sortzen zigun! Ekimen honekin berdina gertatzen zait.

Indarrak batu behar ditugu, Euskal Herria maite dugun guztiok askatasunerantz pausoa emateko, muga eta oztoporik gabe, erabakitzeko eskubidearekin eta autodeterminazioarekin. Bidea luzea izango da, baina gure esku dago lortzea. Ilusioa dugunak asko gara. Gai-nontzekoak aktibatu behar ditugu, gure esku dago lortzea. Ekimenaren bideak dioten bezala, jende zoriontsua herri aske batean lortzea munduko beste herriein elkartasunean Gure Esku dago!

Artziniegako Museoa: 30 urte herri ondarea eta kultura zabaltzen

Artziniegako Museoak 30 urte daramatza euskara, kultura eta ondarea zaintzen. Herritarrek sortu eta kudeatzen duten eskualdeko museo bakarra da. 30.urtemuga ospatzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte.

ERREDAKZIOA |  Unai Gotxi eta Izar Mendiguren

Artziniegako Museoak 30 urte bete ditu. Artea etnografia elkarrekin kudeatzen du. Hasieratik, herritarrek proposatu, sortu eta garatutako proiektua da. Ideia ondare historiko, kultural eta ekologikoagatik kezkatuta zeuden gazte batzuek abiatu zuten.

Ametza errealtate bilakatzeko auzolana erabili zuten. Horretaz gain, ordea, udalaren, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere jaso zuten.

Artea elkarrekin 1977an jaio zen, Artziniegako festak zirela eta, gazte-talde batek antzinako gauzen erakusketara antolatu zuenean. Lortutako arrakastak akuilu⁽¹⁾-lana egin zuen hurrengo urteetan Artziniegainguruko eta eskualdeko lanbideekin zerikusia zuten piezen bilketa sistematikoa egiteko eta erakusketa iraunkorra prestatzeko. 1981ean, taldeak dei egin zien herritarrei Etnografia Museoa sortzen laguntzeko. Museoa 1984ko irailean ireki zen, aurretik Santutegiko ukulu⁽²⁾ izandako lokalean.

2004an handitu egin zuten, eta tokiz aldatu. Nola tresneria hala museoak, auzolanean eskuratua da. Izan ere, egungo museoak osatzen duten tresna guztiak herritarrek utzitakoak dira.

Egungo museoak zaharberritutako eraikin historikoa da. Espazioari dagokionez, 1.700 m²ko erakusketak zabala jasotzen du, hamazazpi gela handitan banatuta. Horien birtatez, eskualdeko biztanleen landako eta hiriko bizimodua nolakoa izan zen ikusteko aukera eskaintzen dute. Kanpoaldean ere, ordea, 2000 m² dituzte ikusgai. Bertan, erakusketak eta aire zabaleko anfiteatroak lekua ematen die hainbat kultur ekitaldi. Museoak gain

herrian ere hainbat egitasmo garatu ditu Arteak etnografia elkarrekin.

Horren adibide da Pablo Respaldizaren sutegia. Artziniegako erdigune historikoan dago eta garai batean Artziniegaren eta bere eskualdearen zerbitzura egondako artisau-tailerra da, Arteak Etnografia Elkarrekin zaharberritu delako ikus daiteke. Errementariaren eskuetatik era guztietako tresnak ateratzen ziren: etxeko tresneria, nekazaritzako lanabesak⁽³⁾, ferrak, iltzeak, torlojuak, burdin sareak eta, batez ere, Euskal Herri-
tik kanpo esportatu ziren idi-gurdientzako gupilak. Hainbat dokumenturen arabera, jarduerak hori Erdi Arotik garatzen zuten Artziniegan. "Beraz, gure historiaren eta gure arbasoen bizimoduaren zati bat da", diote.

Bi solairu

Museoa bi solairutan banatuta dago. Behekoan erakusten dituzte arbasoen jantziak, edariak, etxea, lana, garraiak eta, uztar bilketa, nekazaritza eta korta. Besteak beste, jostunen, zapatarien, abarkagileen, harginen, igeltseroen, otzargileen edo baseritarren lanbideak. Oilategia, txerrikorta, gari-jotzea, otzarak... nola egiten ziren ikusteko aukera ere badago.

Bigarren solairuak, berriz, bizimoduak erakusten ditu. Horregatik, gela ezberdinetan kultura, herria, kirola, eskola, udala eta kontzejak, historia, erlijioa eta historia nolakoa zen azaltzen dute. Horretarako garaiko jostailuak, musika, botikak, tabernak, dendak, eskoletako ikasmahaiak, liburuak... dituzte gordeta. Edo, segan, sokatiran zein frontoian nola aritzen ziren ikusteko materialak. Etxearen atalean, al-

Auzolanean eta herritarrek utzitako tresnekin sortu zuten museoak. 2004 arte Santutegiko korta zuten erakustoki. Duela 10 urte, ordea, txiki geratu zitzaizela eta, eraikinez aldatu zuten.

diz, iragan mende hasierako aberatsen etxea da nagusi: sukaldea, logela, egongela, komuna...

Museoa ireki zutenetik makina bat ekitaldi antolatu dituzte. Guztiak, www.artziniegamuseoa.com webgunean jaso dituzte. Eta, horietako batzuk, hiru hilero argitaratzen duten Gurdia aldizkarian. Hala ere, ez da hori ondareari jarritako ondarale bakarra: Artziniegako pertsona nagusien elkarriketak egin dizkiete. Eta, Soxoguti eta Cabrillako errota zaharberritu.

Bidean, ordea, laguntzak eta otopoak izan dituzte. Dena dela, Eusko Jaurlaritzako eta Arabako Foru Aldundiko kultura batzordeetara bertaratzeko museoak bizirik mantentzea lortu dute. Izan ere, Artziniegako Museo Etnografikoa diruz laguntzea erabaki dute Eusko Jaurlaritzak eta Udalak. Lehenak, 30.000 euro emango dizkio. Bigarrenak, aldiz, 40.000. Diru iturriak eza dela eta, etorkizuna kolokan zuten museoak duela aste gutxi.

Ondarearen erakustoki

Artziniegako museoak historia eta kultur ondarearen erakustokiak dira. Bizia, gainera. Izan ere, antzina nola bizi ziren erakusteko ekitaldi bereziak antolatzen dituzte urtean zehar. Horien artean daude txerrikorta edo herri oratzea.

Lehenengoan, txerria nola hiltzen eta zatikatzen zuten irakasten dute. Era honetan, animalia-
ren inguruko makina bat irakasten ematen dizkiete hurbiltzen diren haur, gazte eta helduei. Goiz bateko ekitaldiak izaten dira, baina arrakasta handia dutenak, jende ugari bertaratzeko baita museoak ikusi eta ikastera.



Museo etnografikoan antzinako lanbide eta ohiturak

Herri oratzea aldiz, antzinako ogibideak zuzenean ezagutzeko antolatzen dute. Bertan, ogia nola egiten zuten entzun eta teoriatik eramanen dute partaideek. Edo, abereak ikusi. Paki Ofizialdegiren esanetan, antzinako bizimodua ezagutarazteko ekimenak dira.

Herri oratzearen kasuan ogia egiteko prestaketa lanak bezperan hasten dituzte. Tailerrean zehar, txorizoarekin ogi opilak egiten dituzte biharamunean. "Umeak labetik ateratzen ikusten dutenean harrituta geratzen dira", dio.

Urtemuga ospatzu

Ibilbidearen balantzaz galdetuta positiboa izan dela dio Jose Luis Fernandez Zurbituk: "Hala ere, guretzat baloraziorik garrantzitsuenak bisitariek egiten dutena da. Orain arte, bikaina". Fernandezek arabera, jendea harritu egiten da tresnen bilduma hain aberatsa ikustean: "Museoan dauden ordu eta erdia oso entretenituta igarotzen dute". Horretaz, gida lanak egiten dituzten kideak arduratzen dira.

Aurtengoa, ordea, 30. urte berezia izango da. Ez dute edonola ospatuko gainera, hitzaldi eta tailer ugari egingo baitituzte. Fernandezek prestatutako gabe eta ilusioz ospatuko duela urteurrena dio; mahainguru batekin eta museoak bisitatzeko ate irekiak antolatuz.

Martxoaren 15ean, esaterako, musika barrokoaren emanaldia izango dute Yolanda Quincoces sopranoaren eta Idoia Aparicio gitarrak jotzailearen eskutik. Ekitaldia 20:00etan izango da.

Nahiz eta museoaren urteurrena martxoaren 25ean izan, ospakizun herrikoia asteburuan gauzatuko da. Izan ere, martxoaren



erakusteko ekitaldiak egiten dituzte. Horien artean, txarriboda. Argazkia: Artziniegako museoa

28an, mahai-ingurua egingo da museoak Euskal Herrian izandako balorazio eta eragina adierazteko. Horren inguruan, museoaren egoitza berrian parte hartu zuten buruzagiak arituko dira, hala nola, Juan Jose Ibarretxe, Imanol Aretxabala, Ramon Rabanera eta Julio Herrera. Gainera, igande horretan, martxoak 30, museoa zabalduko da eta libreki bisitatzeko aukera egongo da.

30 urte barru museoa bizirik ikustea gustatuko litzaioke Fernandezi. Nahiz eta, adinagatik, zaila izango dela aitortu. Denak dela, elkartera jende gaztea batzeari ezin bestekoa deritzo; proiektua berri-itu eta arbasoek utzitako ondarea aberasten jarraitzeko, "Artziniegako eta Euskal Herriko historiaren lagina baita".

Eskualdeari dagokionez Artziniegako, Orozko, Laudio eta Amurrio dira museoak dituzten herri bakarrak. Horietakobatzuk, ordea, itxi egin dituzte. Laudioko euskal museo astronomikoak, esaterako, duelagutxi itxi zituen ateak. Amurri- ordea, Manuel Acha likore museo- a zabalik dago 1913tik. Hain zuzen ere, likoreen Euskadiko lehen museo- a da. Orozkoko museoan, ber- riz, erakusketak, hitzaldiak eta ibilaldiak antolatzen dituzte. On- dareari, ondar alea jarritz.

Hiztegia: akuilu ⁽¹⁾, helduleku / ukuilu ⁽²⁾, korta / lanabes ⁽³⁾, tresna, objektu.

*info: bideoa:

Herri oratzea- ren inguruan egindako bi- deoerreporta- jea.



Antzinako bizimodua eta ogibideak irakasteko 17 gela antonduta dituzte museoan. Urtean zehar, baina, herri oratzea, txerriboda eta bestelako ekitaldiak antolatzen dituzte.

"Guretzako amets bat zen baina auzolan bidez lortu egin genuen"

JOSE LUIS FERNANDEZ ZURBITU (Laudio, 1946) Artea Etnografia elkar- teko kidea da. Museoaren nondik norakoak azaldu ditu.



Jose Luis Fernandez Zurbitu. Argazkia: Unai Gotxi

Noiz sortu zen museoa? Nola- koa izan zen sorrera?

1970 hamarkada inguruan gaz- te talde batek sortu zuen. Kultu- ra eta ekologia zuten interesgu- ne, batez ere. Artziniegan ere- mu ezberdinetan lan egiteari ekin zioten: Encinako zelaia kotxe eta zuhaitzen inbasiotik babesten, udal liburutegia Euskal Herriko argitalpenekin aberasten...

Benjamin Respaldiza Euskal He- rritik kanpo luze bizi izan zen eta itzultzean gure inguruko produk- zio eta bizi ohiturak zeharo aldatu zirela ohartuta ondarea berres- kuratzeko bideak jarri behar zirela argi ikusi zuen. Izan ere, antzina- ko lanbideak desagertzen zihoa- zen, baita tresneriak, altzariak... ere. Horregatik, ondarea zaintze- ko beharra mahaigaineratu eta gure arbasoen bizitza ezagutzeko bideak ireki zituen.

Ideiatik garapenerako bidea nolakoa izan zen?

Gazte talde hori, jai egunetan antzinako tresnen erakusketak... antolatzen hasi zen. Arrakas- ta ikusita herritarrek ganbaretan izan zitzaketen tresna zaharrak eskatzeko deialdia egin zuten; korta edo bestelako lekuetako tresnekin erakusketa egiteko. Pila bat pieza jaso ziren. Horrela, txo- ko bat bilatu eta santutegiko apai- zek utzitako lokalean kokatu zi- tuzten jarduerak. Bertan deneta- riko lanak egin zituzten: peoi la- nak, arotzenak, igeltseroenak, margolarienak... ia-ia dirulagun- tza publikorik gabe.

Urte luzetako lanaren ondoren, 1984an ireki zituen museoak au- rrenekoz ateak. Ordura arte gar- biketa, atonketa, piezen sailkape-

"Antzinako tresna zaharrekin bilduma bat egin zuen gazte talde batek. Arrakasta ikusita erakusketa osatzeko deialdia egin zuten"

"Udalak, elkarte edo ostalariek esan beharko lukete zer ekarri dion herriari. 2004tik hona 109.533 pertsona pasa dira"

"Hitzaldiak, mahainguruak, kultur ekitaldiak... antolatzen ditugu. Baita erakusketak ere. Urtero aire libreko margo lehiaketa egiten dugu"

nak... egin ziren. Protagonistak bi- zilagunak eta bisitariak ziren; ez zegoen protokolorik.

Kulturaren ikuspuntutik zelako egoera bizi zuen Artziniegak?

Euskal Herriko gainontzeko he- rrietan bezala, frankismoak iraun zuen bitartean bizitza kulturala basamortua bezalakoa zen; eliza- ren inguruko elkarrekin bakarrik antolatzen zituzten gauzak.

Gazte talde honek euskara eta euskal kultura eta ingurunea ba- bestearen alde egin zuen lan.

Zergatik erabaki zen museoa lekuz aldatzea?

Museoaren lehendabiziko loka- la guretzako zoragarria zen, et- nografikoki oso landua. Gaine- ra, hobe zena zen ingurune ba- tean kokatua zegoen. Alabaina, jendeak piezak ekartzen jarrai- tu zuen, lanbide eta giro gehiago gorde eta ezagutarazteko aukera emanez. Horrek, lokala txiki ge- ratzea ekarri zuen, zeuden tres- na guztiak gordetzeko ez baitzen aski. Erakusketa gune izatetik bil- toki izatera pasa zen, horregatik, herrian erabili gabe zeuden erai- kinak ikustera joan ginen. Eraikin historiko batera joan zitzaigun be- gia, sorreratik irakasteko erabilia izan zen gune batera, abandona- tua zegoenez erortzeko arriskuan zegoenera.

Guretzako amets bat zen, bai- na kudeaketa egoki eta auzolan bidez konpontzea lortu egin ge- nuen. Udalak eta Arabako Aldun- diak laguntza eman ziguten. Ho- rrela, 20 urte geroago, 2004ko martxoaren 25ean Artea etno- grafia elkarteko kide eta herrita- rren laguntzaz gaur egun dagoen eraikina zabaldu genuen.

Museoaren irekierak zer ekarri dion herriari?

Hori guk baino udalak edo he- rriko elkarteek erantzun beharko lukete! Edo ostalaritza zein bes- telako negozio dende. Guk da- tuak bakarrik eman ditzakegu. 2000 metro karratuko erakuske- tan eta Pablo Respaldizaren su- tegian egindako bisitetan 2004tik 109.533 pertsona pasa dira. El- kartekideek interes ekonomikorik gabe lanean jarraitzen dugu, bi- daiak eta gastu pertsonalak guk ordaindu ditugu.

Zenbat ekitaldi jaso ditu? No- lakoa?

Museoaren kanpoaldean arti- sauen azoka edo Antzinako Mer- katua antolatu izan da. Lehenen- go bi edizioetan Artea etnogra- fia elkartea aritu zen antolatzaile; gainontzekoetan partaide baka- rrik izan gara. Gainontzeko ekin- tzak herri oratzea, udako sols- tizioa, museo bizia, txarriboda, Olentzero... dira. Horretaz gain, hitzaldiak, mahainguruak, kul- tur ekitaldiak... antolatzen ditugu. Baita erakusketak ere. Esate ba- terako, urtero aire libreko margo lehiaketa egiten dugu.

_kultura

Bertsoa, eskoletan bostehun aiaraldear lotzen dituen jolasa



Eskualdeko ikastetxe gehienetan ikasten dute bertsolaritza. Irudian, bertso eskolako haurrak kantari Argazkia: Zingizango

ERREDAKZIOA | | Aitor Martinez Ibarrola

“Koadrila artekoa” ospatzen ari dira Araban bertsolari eta bertsozaleak, Aiaraldeko bitaldearen parte hartzearekin: Aizapoxin eta Amurrio taldea. Saio batzuk geratzen dira oraindik azkeneko jaialdiarekin amaiera eman arte. Apirilaren 5ean bukatuko da Agurainen egingo duten festa batekin. Datorren ostiralean Amurrioren jokatu da ekimenaren azken saioa. Bertan, Aizapoxin taldekoak eta Gasteizko “Bertxotxoak” arituko dira kantari. Reforreako txokoa afari-giroan egingo duten saioa.

Aiarako Bertso Eskolako kideen esanetan filosofia eta parte-hartzaileen aldetik ekimen berezia da aurtengoa: ohiko bat-bateko saioekin batera, koadrila artekoan idatzizko bertso sortak ⁽¹⁾ ere botatzen dira. Horiek izaten dira bertso saioari hasiera ematen diotenak. Epailerik gabeko saioa da. Unai Mendibilek adierazitakoaren arabera, koadrila artekoak, filosofiari begira, txapelketatik ez dauka eta bai parte-hartzetik eta irekitik. Jende berria animatu da, tartean hasi berriak. Unai Mendibil Amurrioko taldearen parte da, eta lehenengo pertsona bizi izan du koadrila artekoa. Giroa askoz lasaigoa dela uste du; “nabaritu da seriotasuna eta tentsioa desagertu direla”. Aiaraldeko bertsolariek duela bi urteko kuadrillarteko txapelketan bigarren postua lortu zuten.

Parte-hartzearekin batera, aurtengoa lehenengo aldia izan da bertsozale elkar-teak egin ordez parte hartu duten taldeek antolatu dutena. Hori izan da berrikuntza handiena. Horrekin saioak autonomoak izatea lor-

tu da. Esate baterako, larunbat batean herri desberdinetan bost saio egon zirela aipatu du Unai Mendibilek. Horrekin Araban bertsolaritza hedatu ⁽²⁾ dela uste du.

Taldearen esku egon da argazki-lariak, audio zein bideo grabatzailerak... bilatzeko ardura. Gainera saioaren formatua ere beraiek aukeratu dute: bertso afaria, bertso bazkaria, bertso poteoa... “Aukera aniztasuna nagusitzen da koadrila artekoan”. Parte hartzaile aldetik eta ikusle aldetik jasotako erantzunean nabaritu da proposamenaren erakargarritasuna.

Hurrengo saioa Amurrioren

Aipatu bezala, eskualdeko bitaldeko parte hartu dute. Amurrioko taldeak Saratxon egin zuen bere saioa, sarri ⁽³⁾ gertatzen den bezala. Izan ere, Unai Mendibilen iritziz, Amurrioren ez dute leku egokirik halako ekimenik antolatzeke. Legutiokoak izan zituzten lagun kasurako antolatutako bertso bazkarian.

Eskualdeko bigarren saioa, eta azkena, Amurrioren egingo du Aizapoxin taldeak, martxoaren 21ean. Aurrez, Agurain taldekoekin aritu ziren kantari Ozaeta herrian egingo dako bertso afari batean. Kontatu dutenez, oso giro onean jardun ziren abesten: “50 lagun inguru batuginen, trikitixa, janari eta barre artean”. Herri desberdinetako saioez gain amaiera bezala festa bat antolatu dute, Agurainen. Asmoa jai handi bat ospatzea izango da. Horretarako parte-hartzaile guztiak modubatean edo bestean egun horretan ere zerbitutetan aritzea bilatuko dute.

Dena dela, koadrila artekoa ez

Bertso koadrila artekoa” ekimena prestatu dute aurten; lehia eta epailerik gabe. Eskualdeko bitaldeko hartu dute parte. Bertso eskoletan edo ikastetxeetan, ordea, 500 aiaraldearrek lantzen dute bertsolaritza.

da bertsolaritzarekin eskualdeak duen harreman bakarra. Izan ere, txikitatik hasten dira bertsolaritza lantzen eskualdeko ikastetxe ezberdinetan.

Horien artean daude Amurrioko eskolak, Audiokoak, Artziniegakoa, Aiarakoa eta Urduñakoa. “Orain urte batzuk ikastetxe askotan lantzen bazen ere, 3 urtetik hona eskualdeko ikasketa zentro guztietan aritzen dira bertsotan”.

Bertsolaritzaren hedapena

Bosgarren mailan hasten dira, 10-11 urterekin, eta bi urtez luzatzen da prozesua, seigarren maila barne. Ikastetxe batzuetan Derriogorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailatan ere lantzen dute. Guztira 500 eta 600 ikasle artean izaten dira urtero.

Ikastetxetako hastapenez gain, Laudion eta Amurrioren bertso eskolak daude. Audiokoak 7-12 urte bitarteko ume txikien eskola jasotzen du. Amurrioren, ordea, 17-18 urteko gazteak biltzen dira. Lehenengoan 7-8 dira guztira eta bigarrenean 4-5 gazte.

Ikastetxetako eskola orduetz gain, oporraldietan ere ekitaldiak antolatzen dira. Orain dela lau urte hasi ziren eskualdean bertso barne-egia antolatzen. Aste Santuko oporrak izaten dira hartarako aukeraturako egunak. Unai Mendibilen arabera oso ondo ateratzen ari da. Iaz aterpetxeko 73 leku bete zituzten, aterpetxeak lekuri ez zuelako. “Askok joan nahi bai baina ezin geratu ziren”, dio. Aurten Espejorako joango dira eta eskainiko duten leku kopurua ere 70en bueltan ibiliko da. Zehazki, apirilaren 22tik 24ra izango da egonaldia. Irteera Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik seigarrenera bitarteko umei zuzenduta dago. Prezioa 40 eurokoa izango da eta hiru egunetan zehar jolasak, bertsoak... egingo dituzte.

Ekimen hauek guztiek, eta bertsolaritzak, orokorrean, euskararen sustapenerako ⁽³⁾ garrantzi handia dutela uste du Unai Mendibilek. “Bertsolaritza oso tresna eraginkorra da horretarako. Batez ere ohar- gabe ikasi eta egiten dutelako euskaraz. Jolasa denez askoz errazago ikasten da.”

Hiztegia: sorta ⁽¹⁾, bilduma / hedatu ⁽²⁾, zabaldu / sustapenerako ⁽³⁾, zabalpenerako.

•info: bideoa:

Arabako kuadrilla arteko bertso txapelketako finalaren kronika



Txani
Rodríguez
IDAZLEA

_Kamerinoa

Bilbotik gertu

ankideek sarritan gale detu didate nola bueltatzen naizen Bilbotik Laudiora eta zenbat irauten duen egin behar dudana bi-daiak. Erantzuna jasota, gehienek Audio ez dagoela beraiek pentsatzen zuten bezain urrun aitortzen didate.

Bilbotar asko Aiara lekutan dagoela sinetsita bizi dira.

Nik beti aukera horiek gure eskualdea goraiatzeko aprobetxatzen ditut. Kexaako monasterioari buruz mintzatzen naiz, adibidez. Gero, Maroño urtegia deskribatzen diet eta han sentitzen den bakeaz hitz egingo dut. Nire solasaldiarekin jarraituz, Delikako ur-jauziaren handitasunaz mintzatzen naiz, eta Bizkaian dagoen hiri bakarrari buruz. Edo, Santa Luzian dagoen santutegiaren inguruan...

Gure eskualdean dauzkagun inguru miragarriak irudikatu ahala, entzuleek bekainak altxatzen dituzte eta Aiara hitza errepikatzen dute euren kolporako.

Kotxez ordu erdi batera dutela inguru hau azaltzen diet. Batzuk oso harrituta gelditzen dira. Makondo ere eskualde honetan egongo balitz bezala...

Ni bilbotarra izango banintz maiz etorriko nintzateke eskualde honetara, erabat txundigarri delako. Baina, egia esanez, haien zorteari inbidia diot beraiek ezagutzeke dutelako eskualde hau.

Aiarari buruz ezer gutxi entzun dutenentzat sorpresa ikaragarria izan behar da gure bazter eder hauetatik ibiltzea. Hain gertu dituzten bazter ezegun hauetatik.

_kultura

_kultur leihoa

 WEB-GUNEAN KULTUR PROPOSAMEN GEHIAGO
IRAKURGAI ETA ENTZUNGAI www.aiaraldea.com/proposamenak



ZINEMA
LLART, LA REVOLTA
PERMANENT
Lander Arteaga.

"1976ko martxoak 3, Gasteiz. Espainiar Polizia Nazionala lan-gile batzar baten erdian indarka sartzen da, eliza baten barruan; ondorioak, bost hildako eta ehundik gorako bala zauritu...."



MUSIKA
FJORD
Endika
Diaz.

"2004 urtean sortu zen bakarrik urte beteko biziraupena izandako Fjord taldea. Epe motz horretan taldeak bere diska bakarra kaleratu zuen, homonimik gorako bala zauritu...."



ARGAZKI BILDUMA: Urduñako kintoetako ekitaldiak iruditan
webgunean ikusgai (Argazkiak: Raul Olaya eta Josu Ganzabal)



Postu eta jende ugari batzen da Baserritar Azokan Argazkia: aiaraldea.com

Baserritar Azoka jasoko du Okondok martxoaren 23an

ERREDAKZIOA  Lucia Menoyo Martin

XVII. Baserritar Azoka ospatuko da Okondon martxoaren 16an. Baserriko eta artisauen produktu erakusketa goizeko 10:00etan irekiko da.

Bertan zer ikusi, zer erosi eta zer dastatu izango dute Okondora hurbiltzen direnek. 11:00etatik aurrera trikitilarien kalejirak alaituko du giroa.

Aurten, txikienengozamenerako, Gorriti eta bere abereen ikuskizuna ekarri dute antolatzaileek; umee txekor-txikiak, zal-di-txikiak, oilarrak eta bestelako abereak hobeto ezagutzeko aukera izango dute. Baita haiekin jolasteko aukera ere. Egurdiko 12:00etan izango dahari. Haurrek ez dute azokan aspertzeko arriskurik, izan ere, egunean zehar

haientzako tailerrak eta gaztelu puzgarriak ere izango dira ere bai.

Mokaduei dagokienez, aukera desberdinak eskainiko dira, goizean gaztain erreak banatuko dira eta 13:00etan, berriz, Eusko Labeleko haragiaz egindako hanburgesen dastaketa egongo da.

Dantza eta kanta emanaldiak

Dantzak eta musikak ere bere lekua izango dute: Okondoko Iratxo Dantza Taldea eta Sodupe-Zaramillo Aitzina Pika Taldearen erakustaldiak izango dira, herriko Itzalde Abesbatzaz lagunduta. Itzalde Abesbatzako gizonak ere emanaldi berezia egingo dute dantzaldia amaitu ostean.

Azokari bukaera ezin hobea emateko artisautza produktuen sorta ederraren zozketa egingo da. Udalak eta herriko kultur elkarteek antolatzen dute azoka eta babesleak Udala, Eusko Label, Kutxabank eta Arabako Foru Aldundia dira.

Aiaraldea Irratiaren kaleko saioa

Aiaraldea Komunikazio Leihoa ere bertan izango da jarraipen berezia egiten. Izan ere, kaleirratsaioa egingo dute azoka eremutik zuzenean. Horretarako, oholtzaren inguruan txoko bat prestatuko dute, elkarriketak eta bestelakoak egingo.

+info: argazkiak: 2011tik 2013 arteko Okondoko Baserritar Azokairuditan



Euskal Zinemaren Astean saritu dute Kepa Sojo

Kepa Sojo zinema zuzendaria- ren "Loco con ballesta" filma saritu dute Euskal Zinemaren Aste- an. Pelikula horrekin jaso duen hogeigarren saria da. Zehazki, publi- koaren gogokoena izateagatik eman zioten aitortza.

Banatu produkzio etxearekin plazaratu du lana Sojok. Filmak, perretxiko bila doazen aita se- meen istorioa kontatzen du. Peli- kulak arrakasta handia izan du.

Txani Rodriguez eta Inma Roizen hitzaldiak irekiko du Audioko liburu azoka

Asteburuan hasiko da Audio- ko liburu azoka. Lamuza plazan kokatuko dira liburu eta diskoen saltokiak. Azoka ostiraletik aurre- ra egongo da ikusgai.

Irekiera ospatzeko Txani Ro- drigezek eta Inma Roizek hitzal- dia eskainiko dute Audioko libu- rutegian. Ostiralean izango da, 19:00etan. Bertan, "Manuela" eta "Agosto" liburuak aurkeztuko di- tuzte.

RZ: Kalamuaren ondorioak

Entzun Aiaraldea Irratian kalamuaren ondoroei buruzko irratsaioa



JON
Muñoz
IRAKASLEA
_Lurpetik

Lamuza parkea

Laudioko parkea laudioar askorentzako erreferente bat da, bai on- dasun arkitektoniko bat delako, baita belaunaldi ezberdinek eremu horrekiko izan duten harremanaren ondorioz.

Hau dela eta Lamuza parkearen inguruan hitz egiterakoan guztioi etortzen zaizkigu gogora bertako oroitzapenak eta bizipenak: nagu- siei Urquijo sendiarenak eta hauen inguruan sortzen zen giroarenak, adin ertainekoei debekatutako eremu magiko batenak eta besteoi ai- sialdiari begira dugun eremuari lotuak.

Oroitzapen guzti horiek direla eta parkeko eraikin batzuek egun bizi duten egoera kezkarri eta tamalgarriak belaunaldi ezberdinak ba- tzen ditu, maila publikoan SOS Audioko Lamuza Parkea plataforma- ren bitartez, zein pribatuan ematen diren elkarriketetan.

70. hamarkadaren erdialdetik, orubea Udalaren eta Aldundia- ren artean erosi zutenetik, eraikinei erabilpen ezberdinak eman zaiz- kie eta espazio horri buruzko proiektu ezberdinak jarri dira mahai gai- nean, batzuk proiektu hutsean geratuz. Baina Lamuzako parkearen- tzat ere denborak aurrera egin du, mantenu lanak lehentasunen ara- bera eginez, eraikin batzuk itxiz eta egun duten egoera tamalgarria eramanez.

Ezin ditugu Musika Etxea eta Kasinoa erortzen utzi, eraikin horiei bi- zitasuna eman behar diegu, herritarrok behar ditugun azpiegiturak sortuz.

KONTRATATU PUBLIZITATEA

AIARALDEA EGUNKARIAN
EDO WEB-GUNEAN

kontsultatu
tarifak eta
eskatu aurrekontua

publizitatea@aiaraldea.com

aiaraldea.com

kirola

PALA

“4 kanporaketa pasata tanto bategatik galdu genuen Euskal Herriko Openeko finalerdia”

ITXASNE AGIRRE (Amurrio, 1996) eta MARIA SANCHEZ (Areta, 1996) pala jokalaria dira. Aretako frontoian entrenatzen dute, eta Araba zein Euskal Herri mailan lehiatu.

ERREDAKZIOA | Aimar Gutierrez

Noiz hasi zineten pala jokoa?

Itxasnerena familia kontua da, ahizpak jolasten zuen eta kirola egitearren apuntatu nintzen.

Maria esku pilotan hasi zen, baina neskek aurrera jarraitze-ko zailtasunak omen zituzten eta palara pasa zen. Hala ere alda-keta positiboa izan zen, nahia-go dut palan aritzea, oso gustu-
ra gabilza.

Txapelketetan parte hartu ohi duzue?

Urtean hiru txapelketa izaten ditugu; Arabako probintzia-la, “ground-a” eta “Open-a”. Bai-na uda partean herrietako jaietan pala erakustaldiak ere egiten di-tugu. Bi urtez edo trinketeen ari-tu ginen eta hor hainbat garai-pen lortu genituen. Gasteizen en-trenatu behar genuen-egunero hara bidaia behar izateak zailtasunak zekartzen entre-namenduak eta ikasketekin tar-tekatzeko. Hori dela eta, trinke-tea uztea erabaki genuen.

Baten batean garaile atera za-rete?

Aurten Arabako probintzia-lean hasi eta urtarilaren amaie-ran emakumezkoen “open-ean” sartu ginen. Hamabost jokalarik hartu dute parte bertan, guk lau kanporaketa jokatu eta finalerdi-tan galdu genuen tanto baten fal-tan. Apirilean “Ground-ean” parte hartuko dugu eta bertan Euskal Herriko zazpi probintzietako tal-deen kontra lehiatuko gara.

Nolako zaletasuna edo indarra dauka palak eskualdean?

Esku pilotak atentzio asko be-reganatzen du. Amurrio eta Orozkon gaztetxo asko da-biltza palan, baina adin ba-tera heltzean jokatzeari uzten diote, normala da motibazioa galtzen joa-tea denbora aurre-ra joan eta irabaz-ten ez denean, ki-rol guztietan ber-dina gertatzen da.

“Nesken partidetara jende gutxiago joaten da. Berdintasuna saltzen dute baina ez da hala”

Exijentzia altua da? Nolako en-trenamenduak egiten dituzue?

Exijentzia baino denbora gale-ra da kontua, bidaia luzeak egin behar dira, askotan egun osoa galtzen da, eta azterketa garaian eragozpena izaten da. Asteazkenean zehar bi ordu entrenatzen dugu, bi egunetan, Aretako frontoian bertan.

Eraginik al du etxean edo kanpoan jokatzek?

Oroko-rrean ez, beti izan-go da ero-soa-go

etxean (Areta-ko fron-toian) jokatzek

neurriak ondo ezagutzen dituzu-lako. Badira oso frontoi hotzak eta non denbora asko behar den berotzeko. Baina normalean kan-poan jolasten dugu, eta esan be-zala nekezena bidaia luzeak dira.

Emakume izateak eragozpenik al du pala munduan? Nolako da emakumeen presentzia?

Aretan gu gara neska bakarrak baina Gasteizen neska asko dabil-tza. Nesken partidetara jende gu-txiago bertaraten da, eta hain-batetan baztertuak egon gara, arbitro faltagatik edo kategoria jaitziera jasan behar izan dugu-lako. Aurten, adibidez, lehenen-go mailan egotea zegoikigun bai-na mutilak apuntatu dira eta guk bigarren mailara jaistera behar-tua ikusi dugu gure burua. Ber-dintasuna saltzen dute baina ez da hala. Txapelketetan, ordea, ez dago desberdintasun handirik; aurten lehenengo maila mistoa egin dute eta bertatik neskak a-te-ra dira garaile, haien artean gas-teiztarra den Laura. Oso ona da, munduko txapelketan ere parte hartu du.

Aurrera begira, nolako helbu-ruak dituzue?

Aurrera begira jarraitzekoa as-moa dugu, aurten gutxiago en-trenatu badugu ere ikasketak di-rela eta, datorren urtean lasaia-go egotea espero dugu eta aur-tengo denboraldian baino askoz hobeto egitea gauzak. Nik -Ma-ria- jolasteaz gain haurrak entre-natzen ditut, eta horrekin jarrai-tzea espero dut; askotan nekeza suertatzen bada ere esperientzia polita da.

ESKUPILOTA:

Bortzirriak eta Zaramaga klubek irabazi dute Euskal Herriko Txapelketa

ERREDAKZIOA |

Ostiral eta larunbatean pilota partida garrantzitsuak jokatu zi-ren Aretako frontoian. Ostiralean Euskal Herriko klubak arteko txapelketako finala izan zen.

Senior mailako ohorezko ligan Rafael eta Fernandez aritu ziren elkarren artean lehiatzen. Azkenean, Rafael irabazi zuen. Hortaz, Arabako Zaramaga klubera joan zen txapela.

Bigarren partida Errandonea eta Mateok jokatu zuten. Jubenil kategorian Errandonea nagusitu zen, Nafarroako Bortzirietara eraman zuelarik lehen postua.

Herriarteko lehiaketa

Bestalde, herrien arteko txapelketa abiatu dute asteburuan Aretako frontoian. Gaztetxoek artean, amurriarrak eta audioarrak lehiatu ziren. Batetik, Martinez eta Soutok osatutako bikotea zelairatu zen. Eta, bestetik, Herriaren klubeko Fernandez de Zuazo eta Canterla gazteak.

Ez zen hori izan, ordea, eskualdeko derbi bakarra. Amurrioko Piconet eta Serranok Rodrigen eta Ibarluzea izan baitzituzten aurkari. Zaramagako eskupilota torneoan ere hartu zuten parte eskualdeko kirolariek. Guztira, lau bikote aritu ziren: Amondo eta Alonso alebinetan, Sanchez eta Eskuza benjaminetan, Larrazabal-Lopez alebinetan eta Yuste-Duendikoetxea infantiletan.

Txapelketa eta partida guztien jarraipena egiten ari da Aretako Herriarenak pilota kluba Facebooken bidez.

Horretaz gain, Galarreta frontoian erremontez gozatzeko bina sarrera eta edari baten zozketa egiten ari dira. Partida irabazleek aukeratuko dute, hilabete bateko iraungipen epearekin. Zozketan parte hartzeko, lagun eskaera bidali behar da.

·Kudeaketa Software·

·Cloud· ·Backup· ·Sareak·

·Telekomunikazioa·

algitech
informatika zerbitzuak

www.algitech.net • Tfno: 94.404 44 95

BITARLAN
INFORMATIKA ETA WEB ZERBITZUAK

T [+34] 946 450 034
E bitarlan@bitarlan.net
H ARAKALDO (BIZKAIA)

- Webguneen garapena
- Kudeaketa eta Web aplikazioen garapena
- Sakelako telefonoetarako aplikazioak
- Mahaigaineko aplikazioak eta multimedia
- Ostatzeko zerbitzuak eta domeinuak
- Satelite bidezko Internet eta VoIP nekazaritza guneetarako

TEKNOLOGIA BERRIAK EUSKARAZ... EUSKARA TEKNOLOGIA BERRIETAN

www.bitarlan.net



_kirola

MENDI BIZIKLETA: Urduñako Gualdetxu mendi bizikleta taldeak irteera ugari antolatu ditu

Urduñako Gualdetxu mendi bizikleta taldeak martxotik ekainera bitarte egingo dituen ibilaldiak aurkeztu ditu. Martxoan zehar bi irteera egingo dituzte. Lehen, datorren igandean izango da; Gasteizko pantanora joango dira. Bigarrena, aldiz, 30ean egingo dute; Getxoko Puntagalean.

IGERIKETA: Emaizta onak lortu dituzte eskualdeko igerilariek Neguko Txapelketan

Arabako Neguko Txapelketako laugarren jardunaldian Mikel Lopezek, Ainhoa Ugarrizak, Olatz Cantonek, Zugaitz Ortizek, Mikel Ibarretzek, Asier Sanchezek, Ander Sanchezek eta Ibai Duñabei- tiak egin zuten igeri. Mikel Lopezek Tolosan aritzeko txartela lortu zuen.



ATLETISMOA: Parte-hartze handia Amurrioko Berdintasunaren aldeko Herri Milian

240 korrikalarik hartu zuten parte Oinkariak taldeak antolatzen duen Berdintasunaren Aldeko Herri Milian. Gizonezkoetan Hassan El Oubaddi atera zen garaile. Emakumezkoetan, aldiz, Laura Oca. Amurriarren artean, Antonio Moreno eta Izaskun Bengoa izan ziren azkarrenak.



Eli Pinedo
ESKUBALOI JOKALARIA

_Helmugari so

Idoloak

Gaur egun, emakume kirolari "idolo" gurtxi dago gure artean. Eta horren arrazoieta-

ko bat da emakume kirolariak gizon kirolariak baino gutxiago agertzen direla komunikabideetan. Puntako emakume kirolariak badaude, baina presentzia txikia dute telebistetan, prentsa idatzian edota irratietan, eta agertzen direnean, emaitza itzelen ostean izaten da, ia beti (Wimbledon, domina olinpikoak, Tourra, Giroa...). Batzuen ustez, gizonen lorpenak balira, emakumeak agertzen diren baino askoz gehiago agertuko lirake. Badirudi benetako arazoa dela, oraindik ere, komunikabideak gizonen sentsibiltate eta interesen arabera egituratuak daudela nagusiki eta oro har emakumezkoen lorpenak, baita kirol arloan egiten dituztenak ere, ezkutuan gelditzen direla. Mentalitate aldaketa bat behar dugu gizarte-ko arlo guztietan, eta, bereziki, komunikabideetan. Horrekin batera, ezinbestekoa da emakume kirolariei eta emakumeek egiten dituzten kirolei laguntzea, prestigio soziala lor dezaten eta euren lorpenak ere ager daitezen. Azkenik, garrantzitsua da kirol aniztasuna bultzatzea. Futbolak beste kirol guztiak alboratzen dituela kontuan izanik, bigarren mailan gelditzen diren kirolen ikusgarritasuna lortu behar da.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna kirol prentsan emakumeek duten presentzia baino harago doa, baina arlo honetan ere aurrerapausoak ematea ezinbestekoa da. Eta emango dira seguru, bitartean gure eskubideak borrokatzen jarraituko dugu.



Iñigo Elosegi Artziniegako helmuga zeharkatzen Argazkia: Javier Sanchez

XXV. AIARAKO BIRA: Iñigo Elosegi da liderra bi etapa irabazita

ERREDAKZIOA | | Xabi Zalbide

Gure eskualdeko kadete-mailako txirrindularitza-proba nagusiak hogeita bosgarren urteurrena ospatzen ari da. Lehenengo bi etapetan, Laudion eta Artziniegan, Iñigo Elosegi zierbenarra izan da garaile. Duela mende laurdena Laudioko txirrindulari-elkarteak Aiarako Bira izeneko lasterketa jarri zuen abian, Arabako kadete-maila-

ko egutegia osatzeko asmoz. Aurtun, beraz, urte seinalatua da, ibil- lian izandako zailtasunen gainetik, probak kadete-mailako hogeit- talde eta 150 ziklista inguru bildu dituelako, Euskal Herri osotik eta estatuko leku gehienetatik etorri- takoak. Ohi bezala, birak lau eta- pa ditu, eta martxoko larunbatean izaten dira, hala, txirrindulari

gazteei denboraldi-hasieran eta- pa bat baino gehiagoko itzuli ba- tean lehiatzea ahalbidetzeko. Da- goeneko lehenengo etapa biak jo- katu dira, Artziniegan eta Laudion, eta bietan Autonervi6n taldeko Iñi- go Elosegi izan da garaile.

Laudioko etapa, euripean

Aiarako Biraren lehenengo eta- pa benetako erronka izan zen txi- rrindularientzat, euria etengabe eta oso mardul ari baitzuen. Ho- rrekasko gogortu zuen lasterketa. Lehen bi itzulietan ihesaldi-saiake- ra batzuk egon ziren arren, 20 km inguruan gertatu zen Mario Lamela (Gerardo de la Calle) eta Jaime Ve- lascoren (Bathco) ihesaldia. Minu- tu erdiko tarte batekin heldu ziren biak Arespalditzako kota punta- garrira. Bertan Autonervi6n talde- ko Iñigo Elosegi atzetik erasoar jo, ihes egindakoak harrapatu, eta on- doren atzean utzi zituen, Laudio- ko helmugara (44. Km) bakarrik hel- tzeko, benetako indarra eta ausar- dia erakutsiz.

Elosegiaren ondoren Mario Lame- la (G. de la Calle), Diego Ruiz (Ca- margo), Javier Coto (Gaurisa) eta Jaime Velasco (Bathco) helmuga- ratu ziren. Mendiko saria Lamelak eskuratu zuen, tarteko helmugak Unai Díazek (Bathco), eta Ando- ni Lopez de Abetxuko lehenengo arabarra izan zen. Bathcok talde- kako sailkapenean nagusi izan zen.

Martxoaren 8an Artziniegan txanda heldu zen. 124 ziklista elkar- tu ziren irteera-puntuan, oraingoan ere 44 km-ko ibilbide bat betetze- ko. Laudion ez bezala, arratsalde eguzkitsua eta beroa zegoen, ezin

egokiagoa bizikletaz ibiltzeko. Oso etapa ikusgarria izan zen, bai egu- raldiagatik, bai txirrindulariak hiru aldiz igaro zirelako Artziniegako alde zaharreko galtzada-harrieta- tik, Barrenkaletik, hain zuzen ere. Garabillako gaina ere (3. kategoria) hirutan igo zuten.

Luyando-Ganzedo taldeko Ju- len Latorrek ikuskizun polita eman zuen, izan ere, alde zaharretik bi- garren aldiz pasatzean, amurria- rrak terreno malkartsuetan di- tuen dohainak baliatu eta erasoar jo zuen. 20. segundoko aldean lortu zuen bainabigarren tarteko helmu- ga gauditutakoan faboritoen talde- ak harrapatu zuen. Dozena bat txirrindularik osatutako talde ho- rretatik atera zen ziztu bizian hain zuzen ere Iñigo Elosegi liderra, Ga- rabillako gaineko bigarrenigoeran. Zierbenakoak beste erakustaldi bat eman eta nagusitasunez altxatu zi- tuen besoak Geltoki plazako hel- mugan, minutu eta erdiko tarte bat ateraz Unai Díaz (Bathco) eta Aritz Zabalari (Basati Bike). Sailkapen orokorrean ere horiek hirurek osa- tzen dute podiuma bi etapa falta di- rela bira amaitzeko. Elosegi men- diko saria eskuratu zuen. Tarteko helmugak Aritz Zabalarentzat izan ziren eta lehenengo arabarra Ju- len Latorre izan zen. Larunbatean laugarren etapa jokatu da Amu- rrioren. Saraubeko gainetik bi aldiz igaroko dira txirrindulariak.

*info: bideoa:

Aiarako XXV. Bi- raren aurkezpen prentsaurrekoa Arespalditzan.



asesores

elkarlan

www.elkarlan.eu

Aholkularitza: Lanekoa, Fiskala, Kontabilitatekoa eta Juridikoa

Foru Kalea, 2 · AMURRIO · Tel. 945 39 33 51 / Lamuza, 12 · LAUDIO · Tel. 94 672 74 28



_Herriko plaza

_lagurrak



Juanjo

Katalin, Paulo eta amatxu,e-tsean daukozuzenak.Ama, arrabak ta anajea danon partez ZORIONAK!! **Zure familia**



Urtzi

Nahizetaetxetikhurrunzauden, zure eguna berezia izatea espero dut. Zorionak eta ongi etorri Laudiora, muxu handi bat! **Iza**



Noelia

Zorionak gure etorkizuneko erizainari! bihotz bihotzez espero dugu ondo pasatzea gaur! Ondo ospatuko dugu denon artean. Muxu asko **zure lagunak**



Fleki

Zorionak Flekiii! Oso ondo pasa zure egunean ta espero dugu horrelako gehiago zurekin ospatzea! **Zure txatxikuadrila**



Abel

Zorionak Abel! Espero dugu oso ondo pasa izana martxoaren 8an eta jarraitu 37 urteak ospatzen! **Encina eta Jurgi**

_#sexgatik (:><:)

Zer da hileroko askea? (Ainhua)

Emakume batzuk hilekoarekin daudenean erabiltzen duten praktika da. Odola noiz aterako den sentitzean datza, komunera joan eta libratzeko, txizarekin egiten dugun bezala. Emakumeek atentzio osoa jartzen dute uteroan, bere uzkurdurak eta odola nola dabilen entzuten ikasten dute. Odola noiz aterako den adierazten duten seinaleak eta sentazioak ezberdintzen ikasten dute. Lo daudenean ere, aterako dela sentitzean esna daitezke.

Hilekoaren kontzientzia edo konexioarekin lotzen da praktika hau, gorputzean gertatzen dena sentitzen, ezagutzen eta baloratzen jakitearekin. Abantailetakoa batzuk dira hileroko kolikoak lasaitu, plazer sexuala handitu, erditzea hobetu eta zoru pelbikoa indartzea. Odolak ama- zelulak ditu, horregatik da hain aberatsa.

Koparekin bezala, ez dute odola komunetik edo zakarrera botatzen, ontzi batean kanporatu eta hainbat erabilera ematen diote: lurra emankortu, azala eta ilea elikatu... Eslovakian neguko tradizioa da adibidez, hilerokoarekin dauden emakumeak trineoetan elurretik arrastatzea, zelaia udaberrirako emankortzeko. Aitzinako emakumeek gona luzeak jantzi-kulerorik gabe- eta helburu berdinarekin borobilean dantzatzen ziren zelaietan. Ekonomikoa, ekologikoa eta osasuntsua, ezta? **Julene Onaindia Garcia**

_denborapasak

		Iragarri-takoak	▼	Gaurtik aurrera	▼	Herri lapurtarra	▼	Musika nota, eskalan bigarrena	
		Aezkoako herri bateko		Izurrite		Bokalik gabeko toki			
		Gai ezti eta urkor	►						
		Enborraren mami	►						
						Lehenengo bokala	►	Irudi ortodoxoak	
						Entzuteko moduan			
Behien bis-tan dago	▼	Edari bizia	▼	Mahatsaren zuku	►		▼	Bokal meheena	►
Egiten errazak		Lerroak, errenkadak		Bigarren bokala				Kemena	
	►		▼						▼
IZENA				DEITURA	►				
Altzari zahar				Tona, labur-labur					
	►					Nonbait	►		
						Bilo			
Bizkaieraz, iratzea	►			Naizen honek	►		▼	Atzizkia	►
Bizkaiko ibaia				Gramoa, labur-labur				51	
	►								
				Galdututako oina	►		▼	Bizkaiko ibaia	►
				Bokala				Kontso-nantea	►
Ekitza okerra, makurkeria			▼				▼		

Erantzuna ikusteko <https://www.aiaraldea.com/users/denborapasak>

_horoskopoa



TARTALO

01.20 - 02.18

Begi bakardun hori...ez al dizu esan amak erne ibiltzeko azterketako galderak irakurtzeko orduan? Hainbestetan erratu izanak ez al dizu ezer erakutsi? Ar-nasa hartu, pentsatu eta idatzi. Kontuz galdera tranpekin!



HERENSUGE

03.21-04.20

Natura ez al duzu gustuko? Us-tez, behar duzuna da. Ingurune-ko kutsaduraz gain jendearen kutsadurak itotzen zaitu, beraz, har itzazu botak eta mendira joan zaitez paseoan, giharrak bezala buruak ere eskertuko dizu eta!



BASAJAUN

05.21 - 06.20

Zure ingurukoak ez ahaztu, fa-milia da gauza guztien gaine-tik beti ondoan daukaguna. Txi-kientzako ere eredu zara eta behar duzun guztietan zurekin egon diren bezala zuk ere be-raiekin egon behar duzu!



GAUEKOAK

07.21 - 08.21

Klaseko Nobita sentitzen zare-la? Indarrak hartu eta kideei au-rre egin, bizitza guztian zehar halakoak ikusiko dituzu sarri-tan, zure ondoan dauden guz-tien ohorean barnean duzun Do-raemona erakutsi. Magia egizu egunero!



AKERBELTZ

09.23 - 10.22

Ausartu? Hori beldurra! Lo-tsak pareta atzean utzi eta go-goko duzun gona jarri. Marmar-ka dabiltzan horiei zaplastekoa emalezu zure edertasunarekin, izan ere, garrantzitsua zarea baino ez dute frogatzen.



ZIRIPOT

11.23 - 12.20

"Nork esan du ezinezkoa da? Nork onartu hori hala dela?" Konformatzea ez da bidea. Urrutira joandako marinelen moduan zailtasunen aurrean arraun egizu gogor, bi eskuekin ezin baduzu behar beste eskatu. Ez zaitu inork geldituko!



GALTZAGORRIAK

02.19-03.20

Nerbioak kontrolatzen saiatu beharko zenuke. Edozer gerta-tzen dela berehala erantzuten duzu eta ez modu onean. Besteak ere minduta sentitu daitezke. Go-goratu: aditu nahi ez zuenak, ez du esan behar. Egizu proba!



LAMIA

04.21 - 05.20

Eguraldi honen atzean zure zo-riori malkoak al daude? zergatiak bilatzen jarraitu beharrean per-sona horri eskerrak eman eta berari ere zorion malko hoiek era-giten saiatu. Maitatua sentitu zai-tezen maitatzen ausartu zaitez!



BASANDERE

06.21 - 07.20

Ez zaitez iraganeko sentipenen-gatik mugitu. Oraina da garran-tzitsua eta orain egiten duzuna da zure etorkizuna mugatuko duena. Iraganean bizi direnak ez dute hel-bururik lortuko, burua libre ueste-ko beharrean zaude, Aurrera!



JENTILAK

08.22 - 09.22

Kontuz ibili lanean lagun ez ditu-zun hoiekin, besteak zapaltzeko joera duen jendea badago. Adis-kidetasun falta ulertzen ez du-zun arren jendea ez du beti uste bezain garbi jokatzeko. Horregatik orain arte bezala jarraitu baina... adi egon!



MARI

10.23 - 11.22

Familia osoaren erantzukizuna ez da bakarrik zurea. Gainerakoek parte hartzeko gogorik ez izate-kotan zeure osasunean pentsa-tu. Burua zaindu, maite eta senti-tu. Besteengan gutxiago pentsatu eta zarena izateagatik poztu!



SUGAAR

12.20 - 01.19

Ez duzu ezer arrarorik suma-tzen? Egunerokoan erabiltzen di-tuzun gauzak non sartzen dituzun ere ez duzu gogoratzen! Memoria faltak lanean bezala bikotearekin arazoak ekarriko dizkizu. Agenda-rik al duzu? Hortxe duzu konpon-bidea...

_irakurlearen txokoa

_agenda

03.13 OSTEGUNA 18:30 AUDIO ASANBLADA CD Laudioen inguruko bilera irekia ULHean 18:30 AUDIO HITZALDIA Abortoaren inguruko adituen mahaingurua Kultur etxean	11:00 AMURRIO ZUHAITZ EGUNA Zuhaitz landaketa Goizalde aterpetxean 11:00 OKONDO ZUHAITZ EGUNA Zuhaitz landaketa Okondoko eskolatik 16:00 AMURRIO TXAPELKETA XXV. Aiarako Bira herrian zehar 20:00 AUDIO KONTZERTUA Mobydick Keska tabernan 20:00 ARTZINIEGA KONTZERTUA Antzinako musika Museoan	18:30 URDUÑA IPUIN KONTALARIA Mugaldere urteurrena Mugalden 03.20 OSTEGUNA 16:30 ARESPALDITZA HITZALDIA Bioaniztasunaren krisialdia udaletxean 18:30 AUDIO HITZALDIA Bizipoza ematen duten janariak kultur etxean 19:30 URDUÑA HITZALDIA Julen Arzuaga: "Euskal Herriko eskubideak.." kultur etxean 20:00 ARETA IKUSKIZUNA Barry Manleyren bakarrizketa euskaraz Kultur etxean
03.14 OSTIRALA 16:30 ARESPALDITZA HITZALDIA Kepa Murua idazlearen autobiografia poetikoa udaletxean 17:00 AMURRIO BIZIKLETA MARTXA Gaztetxearen aldeko Herriko plazatik 18:00 AMURRIO HERRI ARGAZKIA Gaztetxearen alde San Joseko kuartzelazharrean 21:00 URDUÑA KONTZERTUA Uluka gaztetxean 22:30 AUDIO DANTZALDIA Baisala gaua Antzokian	03.16 IGANDEA 13:00 AUDIO EKITALDIA Gure esku dago gizakatea Herriko plazan 03.18 ASTEARTEA 16:30 ARTZINIEGA HITZALDIA Calaverasen historia kultur etxean 18:30 AUDIO HITZALDIA Gizarte gaitasuna eta komunikazioa kultur etxean	03.21 OSTIRALA 18:00 AMURRIO AURKEZPENA Gaztete proiektua San Joseko kuartzel zaharrean 18:00 OROZKO HITZALDIA Ikasle mugimenduaren matxinada gaztetxean 20:00 URDUÑA ERAKUSKETA Argazki proiektzioa Mugalden 21:00 URDUÑA KONTZERTUA Hilbete Mugalden 21:00 AMURRIO BERTSO AFARIA Ai zapotxin, Bertxotxoak Reforreko txokoan
03.15 LARUNBATA 10:00 AUDIO AURKEZPENA Euskal Herriko Eskubide Sozialen aldeko Karta Kultur etxean 10:00 AUDIO ZUHAITZ EGUNA Zuhaitz landaketa Arrañon	03.19 ASTEAZKENA 16:30 AUDIO TAILERRA Zoriontsu izateko ikasten Solastiarren gelan 18:00 AUDIO TAILERRA Hostopil tailerra Basalarrinan	03.22 LARUNBATA 13:00 URDUÑA MUGALDEK 25 URTE Omenaldia Mugalde tabernan 15:00 URDUÑA MUGALDEK 25 URTE Herri bazkaria Monjinetan 16:00 AIARA TXAPELKETA XXV. Aiarako Bira herrian zehar 15:00 URDUÑA KONTZERTUA The potes, Versen eta Dj Bull plazan

ZINEMA

03.15 LARUNBATA "VIVIR ES FACIL CON LOS OJOS CERRADOS" AUDIOKO ULHean 17:30ean (3€) 03.16 IGANDEA "JELLYT" DONIBANE ARETOAn 16:30ean "CABALLERO DE LATÓN" AMURRIO ANTZOKIAN 17:30ean (3.6€) "LA GRAN ESTAFA AMERICANA" DONIBANE ARETOAn 19:00etan "LA LADRONA DE LIBROS" AMURRIO ANTZOKIAN 19:30ean (4.8€) 03.17 ASTELEHENA "LA LADRONA DE LIBROS" AMURRIO ANTZOKIAN 20:00etan (3.6€) 03.22 LARUNBATA "CAPITAN PHILLIPS" AUDIOKO ULHean 17:30ean eta 20:00etan (3€) 03.23 IGANDEA "UN PEZ FUERA DEL MAR" DONIBANE ARETOAn 16:30ean "EN LA FLOR DE LA VIDA" DONIBANE ARETOAn 19:00etan "12 AÑOS DE ESCLAVITUD" AMURRIO ANTZOKIAN 19:30ean (4.8€) 03.24 ASTELEHENA "12 AÑOS DE ESCLAVITUD" AMURRIO ANTZOKIAN 20:00etan (3.6€)
--

Jimmy jazz
gasteiz

MAR 20 // BIDE ERTZEAN
21:00 (8 €)

MAR 21 // BARÓN ROJO & LEO JIMÉNEZ
19:30 (17 / 20 €)

MAR 22 // DOCTOR DESEO
21:00 (15 / 18 €)

MAR 28 // ESNE BELTZA + D'Callaos
20:30 (10 / 15 €)

MAR 29 // REINCIDENTES
20:00 (12 / 15 €)

API 3 // FERNANDO SAUNDERS & FRIENDS
API 4 // LOS SUAVES
API 5 // GATILLAZO + THE CASUALTIES + Vómito
API 5 // TALCO + Skakeitan

André Maria Zuriaren Koroatzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

etxaurre
inmobiliaria

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 170.000 €
75 m², 3 logela, bainugela, sukaldea balkoi itxiarekin, jakitokia, eraberritzeko, kanpoaldera, altzariz hornitua.
Erref.: 167.428

PISUA SALGAI OROZKON
Prezioa: 150.000 €
80 m², 3 logela, bainugela, sukaldea kanpoaldera eta balkoiarekin, jakitokia, igogailua, trastelekua, eraberritua.
Erref.: 167.427

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 150.000 €
75 m², 3 logela, bainugela, sukaldea jakitokiarekin, terraza, trastelekua, prezio negoziagarria.
Erref.: 167.429

ERAIKUNTZA BERRIA ARAKALDON
Prezioa: 315.000 €
137 m², 3 logela, 3 bainugela, egongela tximiniarekin, lorategia, bi autoentzako garajea, trastelekua.
Erref.: 167.390

DUPLEXA SALGAI LUIAONDON
Prezioa: 276.500 €
84 m², 3 logela, 2 bainugela, kanpoaldera, garajea, trastelekua, lorategia, eraberritua, prezio negoziagarria.
Erref.: 99.860

PISUA SALGAI URDUÑAN
Prezioa: 134.000 €
47 m², 3 logela, bainugela, sukalde amerikarra, trastelekua, igogailua, eraberritua, herrigunean.
Erref.: 99.991

PISUA SALGAI AMURRION
Prezioa: 142.000 €
63 m², 3 logela, bainugela, kanpoaldera, eraberritzeko, trastelekua, altzariz hornitua, prezio negoziagarria.
Erref.: 129.702

www.etxaurre.com
Zumalakarregi, 38, 01400
Audio (Araba)
Tlfnoa: 94 672 85 50

_ezin galdu



ZUHAITZ-EGUNA: Okondon, Amurrian eta Laudion zuhaitz eguna ospatuko dute larunbat goizean. Besteak beste, arbolak landatuko dituzte.



PINTXOLEHIAKETA LAUDION: Asteburu honetan tabernen arteko pintxo lehiaketa egingo dute Laudion. Argazkia: Josu Zaldibar

_kontra

aiaraldea


Belate
Olabarria
IRAKASLEA

_Leihotik

Egin dezagun
amets

Josean Mendibil *errromesa*

“Kamara aurrean agertzea baino nahiago dut errromesa izatea”

JOSEAN MENDIBIL (1968, Amurrio) Apdemako kidea da. Down sindromea du, baina horrek ez dio ezer eragotzi: Santiagoko bidea oinez egin eta “Hobetzeko bidea” dokumentalarekin Gasteizko lehiaketa irabazi dute.

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren
Santiagoko bidea egin duzue.
Noiz?

Abuztuaren 18tik 24ra joan ginen oinez. Aurtengoa azken etapa izan da, Galizia aldekoa. Nire us-tez, garestiena. Gure bidaiaren dokumental bat grabatu genuen eta Gasteizko udaleko lehiaketa batera aurkeztu genuen. Aurkeztu ziren film laburren artean gurea atera zen garaile!

Bidaiari ala aktore izatea, zer duzu nahiago?

Erromes izatea. Niri kamaretan eta lekuetan agertzea ez zait gustatzen. Niri animatzea gustatzen zait, oso alaia naiz eta kantuan joaten naiz. Bururatzen zaidan edozein abesti kantatzen nuen!

Autograforik sinatu duzue jada?

Ez, baina esker eta aitortza asko izan ditugu. Film laburra ikusi ostean jende askok geratu gaitu

kaletik! Amurrioko antzokian jende pila bat hurbildu zen dokumentala ikustera, asko harritu ginen.

Herria poltsikoan duzue, beraz!
Oso pozik daude, eta beti dago jendea gu laguntzeko.

Apdemara bolondres asko dagoz, eta atea irekita dagoenean jendea sartzen da. Errege Egunean, loteria saltzean, inauterietan... jende asko hurbiltzen zaigu. Baita tabernetan partidak ikusten gaudenean ere.

Txoritxo batek esan dit idazten ere aritzen zarela.

Nik eskuz idazten dut, anaiari bidaltzen dizkiot ordenagailura pasatzeko gero, hemen ez dugu eta! Bihar gaur egiten ari garen elkarriketaz idatzi behar dut.

Zer gustatzen zaizu egitea?

Pertsona normalen gustuak: Athletic eta Amurrioko futbol partidak ikustera joaten naiz.

Niri kirola ikusteko gustatzen zait. Santiagoko bidea 2005ean hasi genuen 11 pertsonak, Lizarrako ostatu batean egon ginen oinez-koei harrera egiten. Orduan, oinezko izateko ideia sartu zitzaigun buruan, eta hurrengo urtean hasi genuen bidea! Urtero etapa bat egin dugu; zazpi guztira. Gehien ibili ginen egunean 27 kilometro egin genituen, eta gutxien 19! Bidea osorik

Amurrioko hiruk egin dugu, beste batzuk tarteka egin dute: lana, oporrak...

Aurrera begira, baduzu beste abenturarik buruan?

Euskal Herriko kostaldea oinez egin nahi dugu orain. Oraindik ez dugu planifikatu, horretarako proiektua egin eta borrokatu egin beharko dugu!



Urtarrila joan zitzagun, otsailak alde egin digu, martxoak bere bideari ekin dio eta laster dugu hemen gurekin apirila, udaberriko opor garaia! Ohetik gogotsu jaikitze modu bakarra omen da jaiegunez edo asteburuaz pentsatzea. Nik horixe egingo dut. Zurekin partekatuko ditut gaurko ametsak.

Apirilaren erdialdea, urte hasierako lehenengo eguzki izpiak, basamortuko hondarrez betetako dunak, ilargi bete, izarrak... Zergatik ez bidaitu Saharako basamortura? Eta orain 38 urte Marokoko armadak beraien lurraldetik indarrez bota zituen saharauiak eta beraien familiak bisitatzen badituzte?

Gure inguru “aberats” hone-tan urte osoa eman eta gero, basamortuko isiltasunaz eta bakeaz gozatzeko aukera paregabea da.

Askotan galdetu didate: nolatan joango zara ezer ez dagoen lekura? Zer dela eta deusik ez daukatenengana? Agian, horrexen bila noa. Salam alekum!

Graf!k

PRODUKTU PROMOZIONALA
JANTZI ZERBITZUAK
MARKA KUDEAKETA///

Telleria 2 LAUDIO
www.grafiksarea.com
info@promo-grafik.com
Tel: 94 672 65 43
M: 615 75 85 92



GUREKIN
ERE
EUSKARAZ!

**ESKA IEZAIGUZU BEHAR
DUZUN PRODUKTUA ETA
LORTUKO DIZUGU///**

KAMISETA, OPARIAK,
USB-AK, KOPAK, POLTSAK...
SERIGRAFIA, BORDATUA,
BINILOA, INPRESIO DIGITALA